

AURKIBIDEA

0. SARRERA	
0.1 277/2010 eta 21/2019 Dekretuen aplikagarritasuna.....	6
0.2 Araudia.....	7
0.3 Plana idatzi duen teknikaria.....	8
1. JARDUERAREN TITULARRAK ETA KOKALEKUA IDENTIFIKATZEA	
..... 9	
1.1 Jardueraren kokapenaren posta-helbidea. Jardueraren izena, izena eta/edo marka. Telefonoa eta faxa.....	9
1.2 Jardueraren titularrak identifikatzea. Izena eta/edo sozietatearen izena. Posta-helbidea, telefonoa eta faxa	9
1.3 Larrialdi eta Autobabeserako Planaren zuzendariaren izena. Posta-helbidea, telefonoa eta faxa	10
2. JARDUERAREN ETA HURA EGITEN DEN INGURUNE FISIKOAREN DESKRIBAPEN XEHATUA	11
2.1 Egiten diren eta planaren xede diren jarduera guztien deskribapena.....	11
2.2 Planaren xede diren jarduerak egiten diren zentro edo establezimenduaren, bulegoen eta instalazioen deskribapena.....	11
2.2.1 Eraikinaren eraikuntza-ezaugarriak.....	12
2.2.2 Solairuen banaketa.....	13
2.2.3 Komunikazio horizontala eta ebakuazio-irteerak.....	14
2.2.4 Komunikazio bertikalaren elementuak.....	16
2.3 Erabiltzaileen sailkapena eta deskribapena.....	17
2.4 Hiri-, industria- edo natura-ingurunearen deskribapena, jarduera egiten den eraikinak, instalazioak eta eremuak azaltzen direna.....	17
2.5 Jobideen deskribapena. Kanpoko laguntzarako irisgarritasun-baldintzak.	18
3. ARRISKUEN INBENTARIOA, ANALISIA ETA EBALUAZIOA	20

3.1	Larrialdia eragin edo hura gaiztatu dezaketen elementuen, instalazioen, ekoizpen-prozesuen eta abarren deskribapena eta kokalekua.....	20
3.1.1	Arrisku-fokuak.....	23
3.2	Jardueraren beraren arriskuak eta jarduerari eragiteko moduko kanpoko arriskuak identifikatu, aztertu eta ebaluatzea.....	25
3.2.1	Arrisku naturalak.....	26
3.2.2	Arrisku teknologikoak.....	28
3.2.3	Arrisku sozialak.....	29
3.3	Jarduera egiten den eraikin, instalazio eta eremuetarako sarbidea duten pertsonen identifikazioa, kuantifikazioa eta tipologia, bai jarduerari dagozkion pertsonak, bai jarduerari ez dagozkionak	29
4.	AUTOBABESERAKO NEURRIEN ETA BITARTEKOEN INBENTARIOA ETA DESKRIBAPENA.....	31
4.1	Detektatutako arriskuak kontrolatzeko, larrialdi-egoerei aurre egiteko eta kanpoko larrialdi-zerbitzuen esku-hartzea errazteko neurrien eta baliabideen (giza baliabideak zein baliabide materialak) inbentarioa eta deskribapena, erakundeak dituenena.....	31
4.1.1	Baliabide materialak.....	31
4.1.2	Ebakuazio-baliabideak.....	35
4.1.3	Giza baliabideak.....	43
4.2	Segurtasun-arloko xedapen espezifikoak aplikatzeko eskura diren neurriak eta baliabideak (giza baliabideak eta baliabide materialak)	44
5.	INSTALAZIOEN MANTENTZE LANETARAKO PROGRAMA.....	46
5.1	Arrisku-instalazioen prebentziozko mantentze-lanen deskribapena, instalazioak kontrolatzeko modua izatea bermatzen duena.....	46
5.2	Babes-instalazioen prebentziozko mantentze-lanen deskribapena, instalazio horiek egiten dutela izatea bermatzen duena.....	46
5.3	Segurtasun-ikuskapenak egitea, indarrean den araudiaren arabera	51
6.	LARRIALDIEI AURRE EGITEKO JARDUKETA-PLANA.....	53
6.1	Larrialdiak identifikatu eta sailkatzea.....	53
6.2	Larrialdietan jarduteko prozedurak.....	54
a)	Detektatzea eta alerta jotzea.....	54
b)	Alarma mekanismoak.....	55
c)	Larrialdiari erantzuteko mekanismoak.....	56
d)	Ebakuatzea edo konfinatzea.....	56

e)	Aurreneko laguntzak ematea.....	56
f)	Kanpoko laguntzak hartzeko moduak.....	56
6.3	Larrialdietan jarduteko prozedurak aurrera eramango dituzten pertsonak eta taldeak identifikatzea eta haiek izango dituzten eginkizunak.....	57
6.3.1	SUA IZANEZ GERO NOLA JARDUN JAKITEKO FITXAK.....	59
6.3.2	BONBA-MEHATXUA IZANEZ GERO NOLA JARDUN JAKITEKO FITXAK.....	62
6.4	Larrialdietako jarduera-plana abian jartzeko arduraduna identifikatzea.....	63
6.5	Elkartze-puntua.....	63
7.	AUTOBABESERAKO PLANA MAILA HANDIAGOKO BESTE PLAN BATZUETAN INTEGRATZEA.....	64
7.1	Larrialdia jakinarazteko protokoloak.....	64
7.2	Autobabes Planaren zuzendaritzaren eta autobabes plan hau txertatuta den Babes Zibileko Planaren zuzendaritzaren arteko koordinazioa.....	64
7.3	Autobabes plan hau txertatuta den Babes Zibileko Planaren zuzendaritzak eta Autobabes Antolamenduak lankidetzan jarduteko moduak.....	65
8.	AUTOBABES PLANA EZARTZEA.....	66
8.1	Plana ezartzeko arduraduna identifikatzea.....	66
8.2	Autobabes Planean parte-hartze aktiboa duten langileak prestatzeko eta trebatzeko programa.....	66
8.3	Langile guztiei Autobabes Planari buruzko prestakuntza eta informazioa emateko programa.....	66
8.4	Erabiltzaileentzako informazio orokorraren programa.....	67
8.5	Bisitarien jarduerarako seinaleak eta arauak.....	67
8.6	Materialez eta baliabidez hornitu eta egokitzeko programa.....	67
9.	AUTOBABES-PLANAREN ERAGINKORTASUNARI EUSTEA ETA EGUNERATZEA.....	68
9.1	Prestakuntza eta informazioa birziklatzeko programa.....	68
9.2	Baliabideak eta bitartekoak aldatzeko programa.....	68
9.3	Ariketa eta simulazio programa.....	69
9.4	Autobabes Plana osatzen duen dokumentazio guztia berriz begiratzeko eta eguneratzeko programa.....	69
9.5	Auditoretza eta ikuskapen programa.....	70
I.	ERANSKINA. KOMUNIKAZIO-DIREKTORIOA.....	71

II. ERANSKINA. LARRIALDIAK KUDEATZEKO FORMULARIOAK.....	73
III. ERANSKINA. PLANOAK.....	75
IV. ERANSKINA. "KANPOKO ENPRESENTZAKO INFORMAZIOA, LARRIALDIEI BURUZKOA"	77
V. ERANSKINA. "LARRIALDIETAKO LANGILEEN TELEFONOAK" INPRIMAKIA	81
VI. ERANSKINA. SIMULAZIORAKO INPRIMAKIA.....	82

0. SARRERA

0.1 277/2010 eta 21/2019 Dekretuen aplikagarritasuna

2. artikulua. Aplikazio-eremua

277/2010 Dekretua eta 21/2019 Dekretua jarduerari aplikatu behar zaizkion aztertuta, ikusten da baietz, **APLIKATZEKOAK DIRELA** bi dekretuak ere, jarduera honek 300 pertsonatik gorako okupazioa baitu «**jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren**».

4. artikulua. Titularren autobabes-betebeharrak

Laugarren artikuluan adierazitakoaren arabera, I. eranskinean aipatutako jardueren titularrek betebeharrak hauek dauzkate:

- Autobabeserako plana egitea
- Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorra bidaltzea dekretu honetan aurreikusitako datuak, eta datu horiek eguneratuta edukitzea.
- Autobabes Plana ezartzeko eta haren eraginkortasunari eusteko egin behar direnak egitea.
- Autobabes Plana ezarrita delako ziurtagiria Eusko Jaurlaritzari ematea, Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorren bidez.
- Autobabesaz arduratuko diren pertsona fisikoak izendatzea, jardueraren titularrak ez badira haiek.
- Haren zerbitzura diren langileei Autobabes Planaren edukien gaineko informazioa eta prestakuntza ematea.
- Arrisku- eta larrialdi-egoerei aurre egiteko izan behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak edukitzea.
- Erantzukizun zibileko aseguru bat edo haren balio bereko beste edozein finantza-berme sinatzea, babes zibilaren arloko jarduerak, instalazioek, zentroek, establezimenduek edo bulegoek eragin ditzaketen kalteak estaltzeko modukoa.
- Dagokion autobabes planean aurreikusitako neurriak edo egoeraren arabera egokienak eta justifikatuenak direnak aplikatzea.
- Jarduera ustiatzeko edo hasteko lizentzia edo baimena ematen duen organoari edozein aldaketaren berri ematea,

jardueran edo instalazioetan aldaketa funtsezkoa bada eta autobabesari eragiten badio.

- Babes zibileko plan berezien eraginpean diren eremu, zentro, establezimendu eta instalazioetan aldizka egin beharreko ariketak edo simulakroak egitea, eta autobabeserako planetan jasotako aldizkako ariketak eta simulakroak ere egitea.

0.2 Araudia

- 842/2002 Errege Dekretua, 2002ko abuztuaren 2koa, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa.
- Eraikinetako instalazio termikoen erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak. 178/2021 Errege Dekretua
- 277/2010 Dekretua, larrialdi-egoerak sor ditzaketen jarduerak egiten dituzten zentro, establezimendu eta bulegoen autobabeserako EAEko araua onartzen duena.
- 21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa, jarduera, zentro edo establezimendu batzuei larrialdi-egoerei aurre egiteko eskatzen zaizkien autobabes-betebeharrak arautzen dituen dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa
- 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lantokietako segurtasun eta osasun xedapen gutxienekoak ematen dituena.
- 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duena, DB SI eta DB SUA dokumentuetan ezarritakoari dagokionez.
- NBE/CPI-96
- 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, suaren kontrako babes-instalazioen erregelamendua onartzen duena.

0.3 Plana idatzi duen teknikaria

ONDOAN S.COOP. enpresako TERESA TEJERO ARGUELLESek idatzi du autobabes plan hau. Teknikari horrek Eusko Jaurlaritzak 2012ko abuztuaren 3ko Aginduaren bidez emandako egiaztapena du, autobabes planak egiteko teknikari eskudun izateko.

Era berean, jardueraren titularrak ere sinatu du plana, azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuak hala ezartzen duen eran (277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko). Ondoren, erregistratu egin beharko da, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari atxikitako Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrean.

Autobabes plan hau egiteko oinarria establezimenduaren titularrak emandako datuak izan dira: eraikinen ezaugarriak, instalazioenak, biztanleriarenak, banaketarenak, lan-ordutegiak eta zerbitzuen antolamenduarenak. Era berean, **2022ko irailaren 27an** egindako bisitan jasotako informazioan ere oinarritu da.

Dokumentu honetan egin nahi den edozein aldaketa ONDOAN S. COOP. enpresari bidali eta jakinarazi beharko zaio, aztertu eta balora dezan. ONDOAN S.COOP.ek ez du bere gain hartuko dokumentu honen jatorrizko bertsioaren edukietan egin daitezkeen aldaketen gaineko erantzukizunik.

1. JARDUERAREN TITULARRAK ETA KOKALEKUA IDENTIFIKATZEA

1.1 Jardueraren kokapenaren posta helbidea. Jardueraren izena, izena eta/edo marka. Telefonoa eta faxa:

Jardueraren izena: Balda-Yoldi kiroldegia

IFK: Q2000542G

Posta helbidea: Anoeta pasealekua 16. 20014 Donostia.
Gipuzkoa.

Telefonoa: 943481870

Koordenatuak: X: 583517,656Y: Y: 4794726,247

1.2 Jardueraren titularrak identifikatzea. Izena eta/edo sozietatearen izena. Posta helbidea, telefonoa eta faxa

Jardueraren sozietate-izena: Donostiako Kiroletako Udal Patronatua

IFK: Q2000542G

Posta helbidea: Anoeta pasealekua 18. 20014 Donostia

Legezko ordezkaria: Leire Landa Sedano (KUPen kudeatzailea)

NAN: 20169510-M

Telefonoa: 943 48 18 50

E-maila: leire_landa@donostia.eus

1.3 Larrialdi eta Autobabeserako Planaren zuzendariaren izena.

Posta helbidea, telefonoa eta faxa

Autobabes planaren arduraduna:

Izena: Leire Landa Sedano

NAN: 20169510-M

Kargua: Kiroletako Udal Patronatuaren kudeatzailea

Helbidea: Anoeta pasealekua, 18. 20014 Donostia

Telefonoa: 943 48 18 50 / 943 46 43 62

E-maila: leire_landa@donostia.eus

Larrialdietarako jarduketa-planaren zuzendaria: (Larrialdietako burua)

Izena: Mikel Arteaga Mercader

NAN: 72448993M

Kargua: Kiroletako Udal Patronatuko teknikaria

Helbidea: Anoeta pasealekua, 18. 20014 Donostia

Telefonoa: 943 48 18 50

E-maila: mikel_arteaga@donostia.eus

I. eranskinean dira larrialdietako langileen telefonoak.

2. JARDUERAREN ETA HURA EGITEN DEN INGURUNE FISIKOAREN DESKRIBAPEN XEHATUA

2.1 Egiten diren eta planaren xede diren jarduera guztien deskribapena

Eraikinean egiten den jarduera nagusia "**jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak**" da, 277/2010 Dekretuaren arabera (277/2010 Dekretua, larrialdi-egoerak eragin ditzaketen jarduerak egiten dituzten zentro, establezimendu eta bulegoen autobabeserako EAEko araua onartzen duena), eta 277/2020 Dekretua bigarrenez aldatzen duen 21/2019 Dekretuaren arabera.

Balda-Yoldi Kirol Gunean egiten diren jarduerak, funtsean, **kirol- eta jolas-jarduerak** dira, han diren instalazioei eta horrelakoei berariaz dagozkien jarduerak.

Era berean, eraikina beste erabilera batzuetarako ere erabil daiteke: otorduak, kontzertuak, bertsolari-txapelketak, kirol-lehiaketak, danborrada, azokak eta merkatuak, bazkariak, etxebizitza-zozketak, enpresa-bilerak (batzarrak), zinema eta antzerkia, konparazio baterako.

2.2 Planaren xede diren jarduerak egiten diren zentro edo establezimenduaren, bulegoen eta instalazioen deskribapena

Balda-Yoldi kiroldegia Anoeta pasealekuko 18. zenbakian dago. Hiru esparru ditu:

- Paco Yoldi igerilekuak eta kiroldegia: Igerilekuak, kirol anitzeko kantxak, gimnasioak eta zerbitzu horietarako lokalak ditu. Funtzionamendu normala du urte osoan. Moltzo horretan dira instalazio orokorrak eta Carmelo Balda pilotalekua ere (ohiko funtzionamenduekin, hau da, lehiaketa ez bestea, eta, beraz, ez harmailak ere).
- Frontoia: Leku independentea dela aipatzen da, baina, benetan, lehiaketetarako erabiltzen den kasu bereziaz arituko ginateke, harmailak ere erabiltzen direnekoaz.

- Bulegoak: Kiroletako Udal Patronatuaren bulegoak diren esparru independentea da.

Guztira, 5 solairu ditu sestraz gainean, eta 21.933 m2 inguruko azalera eraikia.

2.2.1 Eraikinaren eraikuntza-ezaugarriak

Hauek dira eraikuntza-ezaugarri garrantzitsuenak. Kiroldegia:

Elementua	Deskribapena
Egitura	Hormigoi armatua
Fatxada	Hormigoia, adreilua, metalezko panelak.
Estalkia	Metalezko egitura
Zoruak	Portzelana-gresa eta hormigoia, eta parketa kirol anitzeko pistan

Pilotalekua:

Elementua	Deskribapena
Egitura	Hormigoi armatua
Fatxada	Hormigoi berdindua.
Estalkia	Metalezko egitura
Zoruak	Mortero leunduz estalitako hormigoia

2.2.2 Solairuen banaketa

Hauek dira diren erabilerak/instalazioak.

Solairua	Azalera	Erabilera
0 solairua	7.865 m ²	<p><u>Bulego-gunea</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Bulegoak - Bilera-gela Aireztapeneko makineria - Artxiboa - Espedienteen biltegia - Sukalondoa <p><u>Kiroldegi-gunea</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Aldagelak - Igerilekuen instalazioak - Bulegoa - Dojoa (planetik kanpo) - Kogenerazio ekipoa - Ekipo elektrogenoa - Galdara-gela - Ponpen gela - Transformazio-zentroa - Mantentze-tailerra - Ponpak - Garbiketa - Hozteko makinak - Hipoklorittoa
1. solairua	9.187 m ²	<p><u>Bulego-gunea</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Bulegoak - Bulegoak - Pilotalekua <p><u>Kiroldegi-gunea</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Aldagelak - Biltegiak - Igerilekuak - Kirol-kantxak

Solairua	Azalera	Erabilera
2 solairua	3.151 m ²	<ul style="list-style-type: none"> - Pilotalekuko harmailak - Gimnasioa - Spinning-eko gimnasioa - Igerilekuetako harmailak
P2-5 solairua	100 m ²	<ul style="list-style-type: none"> - EB1 eta EB2 eskailerak
P3 (Xakekoena da)	770 m ²	<ul style="list-style-type: none"> - Biltegia - Bulegoa - Sukalondoa - Komunak - Xakea - Harmailak - - EB1 eta EB2 eskailerak
P3-5	50 m ²	<ul style="list-style-type: none"> - EB2 eskailerak
P4	810 m ²	<ul style="list-style-type: none"> - Xakea - Komunak - Bulegoa - Harmailak - EB1 eta EB2 eskailerak

2.2.3 Komunikazio horizontala eta ebakuazio-irteerak

Hauek dira eraikinak kanpoaldearekin bat egiteko dituen irteerak:

PATRONATUAREN BULEGOAK

Irteerak:

Irteera	Deskribapena	Zabalera (m)	Ebakuazio ahalmenik handiena
SO1	Bulegoetatik ateratzekoa, beheko solairukoa	0,9 m	180
SO2	9 sektoretik (bulegoak) atertzekoa, P1ekoa	0,9 m	180

PACO YOLDI

Irteerak:

Irteera	Deskribapena	Zabalera (m)	Ebakuazio ahalmenik handiena
SY1	SY1: atartea da. Bi ate ditu. Ate horietako batek bi orri ditu, metro 1 zabalekoa bat, eta 0,60 metrokoa bestea (0,60koa blokeatuta). Beste ateak, berriz, metro 1 du zabal. Erabilera normalean, ate horietako bat sarreerako erabiltzen da, eta irteerarako bestea. Larrialdietan, biak irteerakoak dira.	1 m x 2 ate	400
SY2	Beheko solairuan den irteera, instalazio-gunetik abiatuta.	2 m, baina ertza du eta, beraz, 0,85 m geratzen da	170
SY3	7. sektoretik ateratzeko irteera, beheko solairukoa	2,9 m	580
SY4	12. sektoretik ateratzeko irteera, beheko solairukoa	1 m	200
SY5	Kirol anitzeko kantxatik ateratzeko irteera, lehen solairukoa	1,90 m x 4 ate	1.520
SY6	Igerilekutik ateratzeko irteerak	1,70 m x 3 ate	1.020
SY7	Igerilekutik ateratzeko irteera	1,70 m	340
SY8	Igerilekutik ateratzeko irteera	1,70 m	340
SY9	Igerilekuko harmailetatik ateratzeko irteera, bigarren solairukoa	0,90 m x 2 ate	360
SY10	Atzeko aldeko atartetik ateratzeko irteera, bigarren solairukoa.	2 m x 3 ate	1.020
SY11	Pasabidetik ateratzeko irteera, bigarren solairukoa.	0,9 m	180

CARMELO BALDA

Irteerak

Irteera	Deskribapena	Zabalera (m)	Ebakuazio ahalmenik handiena
SB1	Ezkerreko eskaileretako atartetik ateratzeko irteera.	Bi orriko bi ate. Orri bakoitza 1,90 m-koa.	760
SB2	Eskuineko eskaileretako atartetik ateratzeko irteera.	Bi orriko bi ate. Orri bakoitza 1,90 m-koa.	760
SB3	14. sektoretik ateratzeko irteera	1 m	200
SB4	15. sektoretik ateratzeko irteera	1 m	200
SB5	8. sektoretik ateratzeko irteera	1,6 m	320
SB6	8. sektoretik ateratzeko irteera	1,6 m	320

Bezeroa: Donostiako Kiroletako Udal Patronatua Titulua: Balda-
Yoldi kiroldegiko autobabeserako plana Erreferentzia: 22.A100

Eguna: 2023ko urtarrila



SB7	16. sektoretik ateratzeko irteera	0,9 m	180
SB8	18. sektoretik ateratzeko irteera, P2koa	0,9 m	180
SB9	15. sektoretik ateratzeko irteera	1 m	200

DOJOA

Irteerak

Irteera	Deskribapena	Zabalera (m)	Ebakuazio ahalmenik handiena
SD1	Beheko solairutik ateratzeko irteera	3,6 m	720
SD2	Beheko solairutik ateratzeko irteera	3,05 m	610

2.2.4 Komunikazio bertikalaren elementuak

Eraikinaren komunikazio bertikaleko elementuetan eskailera hauek dira:

PATRONATUAREN BULEGOAK

Eskailerak:

Eskailerak	Deskribapena	Zabalera (m)
EO1	P1-PB eskailera. Babestu gabea.	1,20 m
EO2	Kanpoko eskailera.	1 m

PACO YOLDI

Eskailerak

Eskailerak	Deskribapena	Zabalera (m)
EY1	P2-PB eskailera nagusia. Babestu gabea.	1,73 m
EY2	P2-PB barruko eskailera. Babestu gabea.	1,20 m
EY3	PB-P1 barruko eskailera. Babestu gabea.	1,90 m
EY4	Gimnasioko barruko eskailera. Babestu gabea.	1,13 m
EY5	Gimnasiotik P2 pasabidera bitarteko barruko eskailera. Babestu gabea.	1,20 m

CARMELO BALDA

Eskailerak

Eskailerak	Deskribapena	Zabalera (m)
EB1	Ezkerraldeko eskailera. P3-Irteera. Babestu gabea.	2,70 m
EB2	Eskuinaldeko eskailera. P3-Irteera. Babestu gabea.	2,70 m

2.3 Erabiltzaileen sailkapena eta deskribapena

Jendearentzat zabalik den esparrua da, edukiera handiko ikuskizunak emateko jarria.

Hauek dira han izaten diren erabiltzaile ohikoak:

- Administrazio eta mantentze lanetan aritzen diren langileak, Kirol Patronatukoak.
- Ikuskizuna (kirolekoa edo bestelakoa) egitera joaten diren pertsonak.
- Kirol-lehiaketak edo bestelako ikuskizunak ikustera joaten diren pertsonak.
- Ikuskizuna kontrolatzeko langileak. Txartel-saltzaileak, segurtasuneko langileak, laguntzaileak, atezainak.
- Kirol-ikuskizuna antolatzen aritzen diren pertsonak: epaileak, kronometratzaileak eta kirolarien laguntzaileak.
- Bestelako ikuskizun batzuk antolatzen aritzen direnak: artistak, argi- eta soinu-kontrolatzaileak, proiektzionistak eta abar.
- Ikuskizunetan izaten diren beste langile batzuk: kazetariak, ertzainak, osasun-langileak eta abar.
- Kiroldegiko instalazioak kasualitatez erabiltzen ari diren langileak
- Utzitako lokaletako jendea

2.4 Hiri-, industria- edo natura-ingurunearen deskribapena, jarduera egiten den eraikinak, instalazioak eta eremuak azaltzen direna

Kirol-gunea Anoetako kirol-eremuan dago, Donostiako udal-mugartean.

Eraikina inguruko gainerako eraikinetatik bereizita dago. Eraikinaren aurreko aldean Anoetako miniestadioa eta estadioa daude. Alde batean, izotz-jauregia dago, eta atzealdetik GI-20 errepidea pasatzen da.



Balda-Yoldi ingurunea

2.5 Jobideen deskribapena. Kanpoko laguntzarako irisgarritasun-baldintzak

Eraikinerako jobideak

Eraikin aldera (mendebaldeko fatxada) Anoeta pasealekutik jo daiteke. Kale horrek 5 metro zabal ditu, gutxi gorabehera. Nahikoa larrialdietako ibilgailu bereziak pasatzeko.



Jobide nagusiaren ikuspegia (mendebaldeko fatxada)



Iparraldeko fatxada

Eraikinaren barrualdera sartzeko tokiak

Eraikinaren barrualdera mendebaldeko fatxadatik sartzen da (sarbide nagusia).

Irisgarritasuna fatxadatik

Eraikinaren kanpoko fatxada guztiak, ekialdeko fatxada izan ezik, kanpoaldetik esku-hartzeko zerbitzuen ibilgailuak ailegatzeko moduan daude.

Donostiako Suhiltzaile Zerbitzua, eraikinetik hurbilen dagoena, Otxoki ibilbideko 100. zenbakian dago, kiroldegitik 5 km ingurura, eta, beraz, 12 bat minututan kiroldegian izan daitezke.

Hauk dira kapitulu honekin zerikusia duten planoak:

301. planoak. Kokapena eta kanpoko laguntzaren

ibilbideak. 302. planoak. Kanpoko laguntzaren

jobideak.

3. ARRISKUEN INBENTARIOA, ANALISIA ETA EBALUAZIOA

3.1 Larrialdia eragin edo hura gaiztotu dezaketen elementuen, instalazioen, ekoizpen-prozesuen eta abarren deskribapena eta kokalekua

✓ Instalazio elektrikoa

Balda-Yoldi kiroldogiko instalazioek transformazio-zentro bat dute beheko solairuan (sarbidea kanpoaldetik du). Zentro horretatik hornitzen da energia Behe Tentsioko Gela Nagusira, handik banatzen da gero eraikinean diren zonako koadro guztietara eta hala hornitzen dira argindarrez diren ekipoak eta makinak, behe tentsioko koadro orokorrak, indarraren eta argiteriaren banaketa, eta ahotsa eta datuak.

Arazo elektrikoren bat izan edo argindarra kendu behar bada, behe tentsioko gela nagusi horretara jo (beheko solairura) eta instalazio elektriko osoa elikatzen duen hornidura kendu behar da.



Gela elektrikoko sarrera



Transformadorea



Gela elektriko nagusia (argindarra kentzea)

✓ **Berokuntza eta ur bero instalazioa**

Kirol-gunean berokuntza eta ur bero instalazio bat dago. Dituen elementu nagusiak Ygnis markako hiru galdara dira, eta txandaka funtzionatzen dute.

Kiroldegia eraikineko beheko solairuan daude, gela independente batean, eta erabilera eskusiboa dute.



Galdara-gela

✓ **Gas naturalaren instalazioa**

Kiroldegia gas naturalez hornitzen duen ENEa kanpoaldean dago, eta hodi batzuen bidez lotzen handik kontagailuraino. Galdaren eta EUBaren ondoan dago kontagailua. Balda-Yoldi kiroldegian gas naturala erabiltzen da berokuntzarako eta etxeke ur berotarako erregai.

✓ **Kogenerazio ekipoa**

Argindarra sortzeko ekipoa bat ere badago. Gas naturala erabiltzen du.

Eraikinaren barruan dago, beheko solairuan, erabilera eksklusiboko lokal independente batean. Hauek dira haren ezaugarri nagusiak:

- Marka eta modeloa: GUASCOR 90G
- Kontsumo nominala: 26,364 Nm³/h
- Pot. mekanikoa: 97 Kw
- Pot. termikoa: 170 Kw.
- Presioa (martxan denean): 50 mbar

✓ **Ekipo elektrogenoaren instalazioa**

Ezohiko egoeretarako, ekipo elektrogeno bat ere badago. Gasolioa erabiltzen du.

Eraikinaren barruan dago, beheko solairuan, erabilera eksklusiboko lokal independente batean.



Ekipo elektrogenoa

✓ **Igerilekuen arazketa**

Balda-Yoldiko instalazioek arazketa-sistema bat dute. Iragazketa-ekipo bat duen zirkuitu itxi baten bidez egiten du.



Igerilekuetako ura tratatzeko instalazioak

3.1.1 Arrisku-fokuak

Arrisku-fokuak dira berez dituzten ezaugarriak edo haietan egiten den jarduera dela eta istripua izateko probabilitate handiagoa duten puntuak.

Arrisku-fokuak eraikinaren kanpoaldean edo barruan izan daitezke.

Aztergai dugun kasuan, hauek dira aztertutako eraikinean antzemandako arrisku-foku bereziak:

Beheko solairua

Bulego-gunea

- Aireztapen-makinak
- Artxiboa
- Espedienteen biltegia
- Sukalondoa

Kiroldegi-gunea

- Zenbait gauza gordetzeko biltegia
- Kogenerazio ekipoa
- Ekipo elektrogenoa
- Galdara-gela
- Ponpen gela
- Transformazio-zentroa
- Mantentze-tailerra
- Ponpak
- Garbiketa
- Hozteko makinak

- Hipokloritua

1. solairua

Bulego-gunea

- Biltegiak
- Artxiboa

Kiroldegi-gunea

- Aldagelak
- Biltegiak

2. solairua

- Koadro elektrikoak

3. solairua

- Koadro elektrikoak

Atal honekin lotutako planoak hauek dira:

303 planoak *Beheko solairua. Arrisku-fokuak*

304 planoak *01 solairua. Arrisku-fokuak*

305 planoak *02 solairua. Arrisku-fokuak*

306 planoak *02-5 solairua. Arrisku-fokuak*

307 planoak *03 solairua. Arrisku-fokuak*

308 planoak *03-5 solairua. Arrisku-fokuak*

309 planoak *04 solairua. Arrisku-fokuak*

310 planoak *Teilatupeko solairua. Arrisku-
fokuak*

3.2 Jardueraren beraren arriskuak eta jarduerari eragiteko moduko kanpoko arriskuak identifikatu, aztertu eta ebaluatzea.

Aztergai dugun eraikinean (eraikina, haren instalazioak eta okupatzaileak barne) eragiteko moduko arriskuek bi jatorri izan ditzakete: eraikinaren barrualdea eta/edo ingurua. Era berean, kontuan hartu beharreko arriskuak hiru motakoak izan daitezke: naturalak, teknologikoak eta/edo sozialak.

Arriskuak identifikatu ondoren, irizpide kuantitatibo honen arabera ebaluatu behar dira:

Probabilitatearen kalkulua

Kualitatiboa	Kuantitatiboa	Deskribapena
Txikia	1	Mehatxua, gehienez ere, urtean behin gauzatzen da.
Ertaina	2	Mehatxua hilean behin gauzatzen da gehienez (urtean 12 aldiz)
Handia	3	Mehatxua astean behin gauzatzen da gehienez (hilean 4 aldiz)

Inpaktuaren kalkulua

Kualitatiboa	Kuantitatiboa	Deskribapena
Txikia	1	Mehatxua gauzatzearen ondorioz izaten den kalteak ez du ondorio garrantzitsurik izaten.
Ertaina	2	Mehatxua gauzatzearen ondorioz izaten diren kalteak ondorio aipagarriak izaten ditu.
Handia	3	Mehatxua gauzatzearen ondorioz izaten diren kalteak ondorio larriak izaten ditu.

Arriskuaren kalkulua

		ERAGINA		
		TXIKIA	ERTAINA	HANDIA
PROBABILITATE	TXIKIA	Oso txikia	Txikia	Ertaina
	ERTAINA	Txikia	Ertaina	Handia
	HANDIA	Ertaina	Handia	Oso handia

ARRISKU MAILA	LOTUTAKO JARDUKETA
Oso txikia	Ez da ekintza espezifikorik behar
Txikia	Ez da prebentzio-ekintza hobetu beharrik. Hala ere, kontuan hartu behar da karga ekonomiko handirik ez dakarten hobekuntza batzuk egitea. Aldizka-aldizka egiaztapen batzuk egin behar dira.
Ertaina	Arriskua murrizteko ahaleginak egin behar dira. Murrizteko neurriak denbora jakin batean ezarri behar dira.
Handia	Arriskua murriztu arte ez da jarduten hasi behar. Arrisku hori egiten ari den lan bati badagokio, arrisku ertaina denean baino denbora laburragoan egin behar da.
Oso handia	Arriskua murriztu arte ez da jarduten hasi behar, eta ezta jarduten jarraitu ere. Arriskua murriztu ezin bada, gelditu egin behar dira egiten ari diren gauzak.


3.2.1 Arrisku naturalak

Arrisku naturalak fenomeno atmosferikoek sortzen dituztenak dira. Adibidez, euri-jasak (uholdeak, eraikinak inkomunikatuta geratzea eta luiziak eragin ditzakete horiek), tximistak (sua eta zerbait behera etortzea eragin ditzakete) eta era bereko beste batzuk.

Baso-sua izateko arriskua dela eta, Eusko Jaurlaritzaren larrialdi-planek ezarritako eragin-eremutik kanpo dago eraikina. Hala ere, plan horiek aktibatzea kanpoko zerbitzuei dagokie, eta, beraz, zerbitzu horiek adierazitako jarduketei jarraitu behar zaie.

Uholde-arriskuari dagokionez, EAEko Uholde Arriskuen 1:25.000 mapak dakar urak hartzeko moduko arro eta eremuen uholde-arriskua. Balda-Yoldi kirol-gunea den tokia arrisku hori izateko eremuetatik kanpo dago.


Gainkarga izateko arriskua badago, ekaitzetan sortutako tximistek eraginda; izan ere, Donostia 3 indizearekin katalogatutako eskualde edo eremu baten barruan dago (lurrean jotzeko inpaktu dentsitatea, inpaktu kopurua/urte, km²). Datu objektibo batzuk izate aldera, Eraikuntzako Kode Teknikoak (EKT, 314/2006 ED) dakarren inpaktu dentsitatearen mapa ere erantsi diogu honi.



Lurrean jotzeko inpaktu dentsitatearen mapa Ng

Arrisku naturalekin jarraituz, esan dezagun **grabitate-arriskurik** ez dela kontuan hartu (mendi-mazelak mugitzea, luiziak izatea, hondoratzea eta abar), eraikina geologia aldetik egonkor eta finkatuta den lurzoru batean dago eta.

Era berean, **izaera sismikoko arrisku naturalak** ere aztertu ditugu, 997/2002 Errege Dekretuan ("Sismo-erresistentziako arau orokorra") ezarritakoaren arabera, eta zehaztu dugu ondorio katastrofikoak izateko moduko lurrikara izateko oso probabilitate txikia dela aztergai dugun eremuan. Irudian, lurralde nazionalen mugimendu sismikoak izateko diren probabilitateak ikus daitezke.



Arrisku sismikoaren mapa

Haizeak arrisku natural gisa duen arriskua kontuan hartuta, Meteorologia Fenomeno Kaltegarriak Iragartzeko eta Zaintzeko Plan Nazionalak fenomeno kaltegarritzat hartzen du haizea EAEn, betiere gehieneko haize-bolada atalase jakin batzuk gainditzen badituzte (km/h), eta 3 arrisku-maila ezartzen ditu: horia, laranja eta gorria.

umbrales		vientos		
NOMBRE DE LA ZONA	PROVINCIA	amilo	nanja	rojo
Cuenca del Nervión	Álava	70	90	130
Llanada alavesa	Álava	70	90	130
Rioja alavesa	Álava	70	90	130
Guipúzcoa litoral	Guipúzcoa	90	110	140
Guipúzcoa interior	Guipúzcoa	90	110	140
Vizcaya litoral	Vizcaya	90	110	140
Vizcaya interior	Vizcaya	90	110	140

Taula horren arabera, eraikina Gipuzkoako probintzian dago (itsasertzean), eta, beraz, balio horiek hartu behar dira kontuan.

Eraikinari eragin diezaioketen beste arrisku natural batzuk hauek dira: Ekaitzak eta bero-boladak.

Arrisku naturalek eraikinari zer-nola eragingo lioketen:

Mehatxua	Probabilitatea	Eragina	Arrisku maila
Baso-sua	1	1	Oso txikia
Uholdea	1	2	Txikia
Tximistak	1	2	Txikia
Grabitatea	1	1	Oso txikia
Haizeak	1	2	Txikia
Ekaitzak	1	2	Txikia
Bero-boladak	1	2	Txikia

3.2.2 Arrisku teknologikoak

Eraikinaren kanpoaldetik zein barrualdetik etor daitezkeen arrisku teknologikoak instalazioetatik eta ingurutik etorritakoak izan daitezke.

Eraikinaren gertuko ingurua hiri-eremutzat jotzen da, eta ez dago, berez behintzat, arriskutsutzat jotzeko moduko instalaziorik han. Eraikinaren barrualdean arrisku teknologiko hauek identifikatu ditugu:

- ✓ Su-arriskua. Sua izateko arriskua dago hainbat lekutan. Adibideak: koadro elektrikoak, biltegiak, klimatizagailuak eta abar. Suak, berez, hondakinak eta isuriak (lurrera eta airera) sor ditzakete; karbono monoxidoa, batez ere.

- ✓ Leherketa-arriskua. Eraikinean ager daitezkeen beste arazo mota batzuk instalazioaren osagaien leherketarekin lotutakoak dira. Gas-instalazioarena, adibidez.
- ✓ Gasak ihes egiteko arriskua. Arrisku mota hori kontuan hartu behar da, gas-instalazioa du eraikinak eta.
- ✓ Uholde-arriskua. Arrisku mota hori kontuan hartu behar da, uraren zirkulazio-sisteman, besteak beste, haustura edo jario batzuk izan baitaitezke.

Arrisku teknologikoen ebaluazioa:

Mehatxua	Probabilitatea	Eragina	Arrisku maila
Sua	1	2	Txikia
Leherketa	1	2	Txikia
Gas-ihesa	1	2	Txikia
Uholdea	1	2	Txikia

3.2.3 Arrisku sozialak

Arrisku antropiko/sozialak kontrolatu gabeko elementu edo talde jakin batzuen jokabide antisozialek ekarritakoak izaten dira (sabotajea, intrusioa, ordena publikoa asaldatzea eta abar).

Arrisku sozialen ebaluazioa:

Mehatxua	Probabilitatea	Eragina	Arrisku maila
Sabotajea, intrusioa	1	2	Txikia

3.3 Jarduera egiten den eraikin, instalazio eta eremuetarako sarbidea duten pertsonen identifikazioa, kuantifikazioa eta tipologia, bai jarduerari dagozkion pertsonak, bai jarduerari ez dagozkionak

"Erabiltzaileen sailkapena eta deskribapena" atalean (2.3 atala), eraikinean izan daitezkeen pertsonen tipologia zehaztu dugu.

Eraikinaren okupazio-ordutegia kontuan izanda, hau izan daiteke:

Kirol-instalazioen ordutegia	Instalazioaren ordutegia: <ul style="list-style-type: none">• Astelehenetik ostiralera: 7:30 - 22:00• Larunbatetan: 8:30 - 22:00• Igande eta jaiegunetan: 9:00 – 14:00 Oharra: Igerilekua ordu erdi lehenago ixten da Udako ordutegia <ul style="list-style-type: none">• Astelehenetik ostiralera: 7:30 - 20:30• Larunbatetan: 9:00 – 20:00• Igande eta jaiegunetan: irekita
Kirol-instalazioen ordutegia	Instalazioaren ordutegia: <ul style="list-style-type: none">• Astelehenetik ostiralera: 7:30 - 22:00• Larunbatetan: 8:30 - 22:00• Igande eta jaiegunetan: 9:00 – 14:00 Udako ordutegia <ul style="list-style-type: none">• Astelehenetik ostiralera: 7:30 - 20:30• Larunbatetan: 9:00 – 20:00• Igande eta jaiegunetan: irekita

*Oharra: Urtero onartzen dira instalazioaren ordutegiak. Hala ere, urtea bukatu baino lehen ere aldatu daitezke, beharren arabera.

Eraikinaren okupazio-dentsitatea 4.474 pertsona da. Hona hemen solairu bakoitzeko azken okupazioak jasotzen dituen taula.

4. AUTOBABESERAKO NEURRIEN ETA BITARTEKOEN INBENTARIOA ETA DESKRIBAPENA

4.1 Detektatutako arriskuak kontrolatzeko, larrialdi-egoerei aurre egiteko eta kanpoko larrialdi-zerbitzuen esku-hartzea errazteko neurrien eta baliabideen (giza baliabideak zein baliabide materialak) inbentarioa eta deskribapena, erakundeak dituenena

Kontzeptu honek edozein ezbehar mota prebenitzeko eta/edo ezbeharra izanez gero jarduteko balio duten elementu eta sistema guztiak biltzen ditu (pertsonek eta materialenak), ezbeharra ahalik eta azkarren neutralizatzeko.

4.1.1 Baliabide materialak

✓ Automatiko antzemateko instalazioa

Automatiko antzemateko sare bat dago eraikin osoan zabaldua, suak automatiko antzemateko zentralera konektatuta (telefonogunea). Harreran, lehen solairuan, dago zentrala.



Telefonogunearen irudia



Detektagailu automatikoaren irudia

✓ Alarma-instalazioa

Alarma sakagailu eta sirena sare bat dago eraikin osoan zabaldua. Suak automatiko antzemateko zentralarekin konektatuta dago sistema hori ere.

Era berean, megafonia (lehenengo solairuan) eta telefonoak ere badaude.



Sakagailua eta sirena

✓ **Automatiko itzaltzeko instalazioa**

Beheko solairuko biltegian langarreztagailu automatiko batzuk daude jarrita.



Langarreztagailua

✓ **Sua eskuz itzaltzeko instalazioak**

Sua itzaltzeko baliabide hauek ditu eraikinak:

- Eskuko su-itzalgailuak:

Bi su-itzalgailu mota daude: Hautsezkoa (ABC suak itzaltzeko) eta CO₂koa, instalazioaren puntu batzuetan.



CO₂ko itzalgailua eta hautsezkoa

- Suetarako ur-hargune hornituak

Suetarako ur-hargune hornitu sare bat dago eraikin osoan zabaldua (beheko solairuan eta bulego-eremuko lehen solairuan izan ezik), udalaren saretik hornitzen dela. Zurrunak dira, 25 mm-ko diametrokoak, eta malguak, 45 mm-ko diametrokoak.



SUHa

- Ur-harguneak:

Ur-hargune batzuk badaude esparruaren kanpoaldean (ikus haien kokapena 302 planoan), herritarren hornidura-sare orokorretik elikatzen direnak. Kutxatila-harguneak dira.

✓ Larrialdietako argiak

Eraikinak badu larrialdietako argiztapena solairu guztietan, ekipo autonomoetan oinarritua. Larrialdietako argiak argiteria orokorrak huts egiten duenean edo tentsioa bere balio nominalaren % 70era jaisten ez denean automatiko martxan jartzeko pentsatuta dago.



Larrialdietako argiak

✓ **Larrialdietako seinaleak**

Eraikin osoan zabaldua daude seinale lumineszenteak, suaren aurkako babes-baliabideen kokapena eta ebakuazio ibilbideak eta irteerak adierazteko.



Seinaleztapen lumineszentea

✓ **Babes pasiboko instalazioak**

Eraikinak su-sektore batzuk ditu. Eraikinaren sektorizazioa:

Solairua	Sektoreak
TXIKIA	S1 Dojoa (Borroka arteak) S2 Igerileku txikiaren instalazioak S3 Igerileku handiaren instalazioak S4 Atondoa S5 Korridorea eta bulegoak S6 Instalazio elektrikoaren lokalak S7 Biltegia S8 Arku-tiroa eta tiro pneumatikoa

	S9 Bulegoak S10 Aldagelak S11 Balda inguruko atondoak eta EB1 eta EB2 eskailerak
LEHENENGOA	S1 Dojoa (Borroka arteak) S4 Atondoa S10 Aldagelak S12 Igerilekuak S13 Kantxa balioaniztuna S14 Balda frontoia eta harmailak S15 Hainbat lokal S16 Lokalak
BIGARRENA	S4 Gimnasioa S11 EB1 eta EB2 eskailerak eta Baldako harmailak S12 Igerilekuetako harmailak S13 Gimnasioa S14 Frontoia eta harmailak S18 Hainbat lokal
HIRUGARRENA	S11 EB1 eta EB2 eskailerak eta bulegoak S14 Baldako harmailak S19 Xakea
LAUGARRENA	S11 EB1 eta EB2 eskailerak eta bulegoak S14 Baldako harmailak S19 Xakea

Sektorizazio hori bermatzeko, kontuan hartu behar da suaren aurkako ateen egoera egokia izatea eta sektoreen arteko instalazio-pasabideen obturazioa.

Ikus 319-326 planoak Ebakuazio bideak eta sektorizazioa

4.1.2 Ebakuazio-baliabideak

Larrialdietan, funtsezko fase bat izaten da eraikinean diren pertsona batzuk edo guztiak (2.3 eta 3.3 ataletan deskribatuta dira okupatzaileak) ebakutzera, ebakutu beharra dela jotzen denean.

Eraikinak kanpoaldearekin komunikatzeko elementu hauek ditu: BALDA-YOLDI kirolguneko ebakuazio-bideak osatzen dituzten irteerak, eskailerak eta pasabideak:

Gai hau esparru bereziak kontuan hartuta landu dugunez, zenbakitze bakarra ezarri beharrean, esparru bakoitzeko irteerak banan-banan zenbakitu ditugu; baina, zein esparru den bereizteko, O erantsi diogu "bulegoa" adierazteko, Y "Yoldi" adierazteko, B "Balda" adierazteko eta D "Dojoa" adierazteko.

PATRONATUAREN BULEGOAK

Irteerak:

Irteera	Deskribapena	Zabalera (m)	Ebakuazio ahalmenik handiena
SO1	Bulegoetatik ateratzekoa, beheko solairukoa	0,9 m	180
SO2	9 sektoretik (bulegoak) atertzekoa, P1ekoa	0,9 m	180

Eskailerak:

Eskailerak	Deskribapena	Zabalera (m)
EO1	P1-PB eskailera. No Babestu gabea.	1,20 m
EO2	Kanpoko eskailera.	1 m

PACO YOLDI

Irteerak:

Irteera	Deskribapena	Zabalera (m)	Ebakuazio ahalmenik handiena
SY1	SY1: atartea da. Bi ate ditu. Ate horietako batek bi orri ditu, 1,00 metro zabalekoa bat, eta 0,60 metrokoa bestea (0,60koa blokeatuta). Beste ateak, berriz, metro 1 du zabal. Erabilera normalean, ate horietako bat sarrerarako erabiltzen da, eta irteerarako bestea. Larrialdietan, biak irteerakoak dira.	1 m x 2 ate	400
SY2	Beheko solairuko irteera, instalazio-gunetik abiatuta.	2 m, baina ertza du eta, beraz, 0,85 m geratzen da	170
SY3	7. sektoretik ateratzeko irteera, beheko solairuan dena	2,9 m	580
SY4	12. sektoretik ateratzeko irteera, beheko solairukoa	1 m	200
SY5	Kirol anitzeko kantxatik ateratzeko irteera, lehen solairukoa	1,90 m x 4 ate	1.520
SY6	Igerilekutik ateratzeko irteerak	1,70 m x 3 ate	1.020
SY7	Igerilekutik ateratzeko irteera	1,70 m	340
SY8	Igerilekutik ateratzeko irteera	1,70 m	340
SY9	Igerilekuko harmailetatik ateratzeko irteera, bigarren solairukoa	Orri bateko bi ate, 0,90 m zabalekoa bakoitza.	360
SY10	Atzeko aldeko atartetik ateratzeko irteera, bigarren solairukoa.	2 m x 3 ate	1.020
SY11	Pasabidetik ateratzeko irteera, bigarren solairukoa.	0,9 m	180

Eskailerak

Eskailerak	Deskribapena	Zabalera (m)
EY1	P2-PB eskailera nagusia. Babestu gabea.	1,73 m
EY2	P2-PB barruko eskailera. Babestu gabea.	1,20 m
EY3	PB-P1 barruko eskailera. Babestu gabea.	1,90 m
EY4	Gimnasioko barruko eskailera. Babestu gabea.	1,13 m
EY5	Gimnasiotik P2 pasabidera bitarteko barruko eskailera. Babestu gabea.	1,20 m

CARMELO BALDA

Irteerak

Irteera	Deskribapena	Zabalera (m)	Ebakuazio ahalmenik handiena
SB1	Ezkerreko eskaileretako atartetik ateratzeko irteera.	Bi orriko bi ate. Orri bakoitza 1,90 m-koa.	760
SB2	Eskuineko eskaileretako atartetik ateratzeko irteera.	Bi orriko bi ate. Orri bakoitza 1,90 m-koa.	760
SB3	14. sektoretik ateratzeko irteera	1 m	200
SB4	15. sektoretik ateratzeko irteera	1 m	200
SB5	8. sektoretik ateratzeko irteera	1,6 m	320
SB6	8. sektoretik ateratzeko irteera	1,6 m	320
SB7	16. sektoretik ateratzeko irteera	0,9 m	180
SB8	18. sektoretik ateratzeko irteera, P2koa	0,9 m	180
SB9	15. sektoretik ateratzeko irteera	1 m	200

Eskailerak

Eskailerak	Deskribapena	Zabalera (m)
EB1	Ezkerraldeko eskailera. P3-Irteera. Babestu gabea.	2,70 m
EB2	Eskuinaldeko eskailera. P3-Irteera. Babestu gabea.	2,70 m

DOJOA

Irteerak

Irteera	Deskribapena	Zabalera (m)	Ebakuazio ahalmenik handiena
---------	--------------	--------------	------------------------------

Bezeroa: Donostiako Kiroletako Udal Patronatua Titulua: Balda-
Yoldi kiroldogiko autobabeserako plana Erreferentzia: 22.A100

Eguna: 2023ko urtarrila



SD1	Beheko solairutik ateratzeko irteera	3,6 m	720
SD2	Beheko solairutik ateratzeko irteera	3,05 m	610

Eraikinaren okupazioa funtzionamendu-baldintza normaletan

Eraikina zein urtetan eraiki zen kontuan hartuta, EOA-SBB-96 araudiaren xedapenak aplikatu behar litzazkioke. Hala ere, eraikuntzako kode teknikoaren arabera egingo ditugu okupazio kalkulak. Eraikinak funtzionamendu-baldintza normaletan izan dezakeen okupazioa "SS oinarrizko dokumentua. Suteetatik babesteko segurtasuna"ren arabera zehazten da. (ikus SS 3 ataleko 2.1 taula).

Gainera, **lokal batzuetan okupazio-muga batzuk ere jarri ditugu, banan-banan justifikatuta.**

Taula honetan deskribatu dugu eraikinaren okupazioa, eremu bakoitzaren erabileren arabera, sektore bakoitzerako banakatuta:

Paco Yoldi kiroldegiko su sektoreak					
Sektorea	Solairua	Esparrua	Azalera (m2)	Okupazioa Esparrua Sektorea	
1. sektorea		Borroka Arteetako Aretoa	1.256		463
	0	Ataria	240	1p/2 m2	80
	0	Eserlekuen atondoa			80
	0	Gimnasioa	64	1p/5 m2	13
	0	Ataria	240	1p/2 m2	40
	0	Administrazioa 1	9	1p/10 m2	1
	0	Administrazioa 2	9	1p/10 m2	1
	0	Komunak 2	81	1p/2 m2	40
	0	Komunak 1	92	1p/2 m2	46
	-1	- 1 solairutik datozenak			162
2. sektorea		Igerileku txikiaren arazketa-gela	330		0
		Arazketa-gela	330	0	0
3. sektorea		Igerilekuaren azpialdea eta airea girotzekoak	2346		0
		Plisti-plasta ibiltzeko igerilekuen arazketa eta iragazketa	843	batere ez	
	0	Igerilekuen arazketa eta iragazketa	1181	batere ez	0
	0	Girotzea eta EUBa metatzea	311	batere ez	0
4. sektorea		Gimnasioa eta atondoak	809		121
	0	Atondoa	16	10 p/2 m2	2
	1	Atondoa	24	10 p/2 m2	3
	2	Gimnasioa	584	5 p/1 m2	116
5. sektorea		Aldagelak eta tailerra	279		23
	0	Bulegoa	26	1p/10 m2	2
	0	Aldagelak	19	1p/2 m2	9
	0	Aldagelak	24	1p/2 m2	12
6. sektorea		Galdara-gela	107		0
		Galdara-gela		0	
		Ekipo elektrogenoa		0	
		Kogenerazio ekipoa		0	
7. sektorea		Biltegia	772		0
		Transformazio zentroa		0	

Paco Yoldi kiroldegiko su sektoreak					
Sektorea	Solairua	Esparrua	Azalera (m2)	Okupazioa Esparrua Sektorea	
		Biltegi nagusia		0	
8. sektorea		Arku-tiroa eta tiro pneumatikoa	1.350		182
		Arku-tiroa	143	1p/2 m2	71
		Arku-tiroaren bulegoa	23	1p/10 m2	3
		Tiro pneumatikoko galeria	241	1p/2 m2	99
		Bulegoa eta armairuak	46	1p/2 m2	5
		Bulegoa	36	1p/2 m2	4
9. sektorea		Patronatuaren bulegoak	1.247		117
	0	Izapideak egiteko gunea	55	1p/10 m2	6
	0	Itxaron gunea	24	1p/2 m2	13
	0	Informazioa eta erregistroa	11	1p/10 m2	2
	0	PMD bulegoko 1. solairurako sarbidea	29	batere ez	0
	0	Kudeaketa gunea	43	1p/10 m2	5
	0	Prestakuntza-gelara eta komunetara jotzeko korridorea	25	batere ez	0
	0	Biltegia	17	batere ez	0
	0	Komun eta komun-aurreko egokituak	11	batere ez	0
	0	Itxita	6	batere ez	0
	0	Prestakuntza-gela	76		38
	1	Kontratazioa	38	1p/10 m2	4
	1	Kirol jarduerak	69	1p/10 m2	7
	1	Bilera-gela	21	1p/10 m2	3
	1	Arlo teknikoa	146	1p/10 m2	15
	1	Bilera-gela	37	1p/10 m2	4
	1	Bulegoa	22	1p/10 m2	3
	1	Bilera-gela	21	1p/10 m2	3
	1	Giza Baliabideen Bulegoa	65	1p/10 m2	7
	1	Giza baliabideak	13	1p/10 m2	2
	1	Kontabilitatea	54	1p/10 m2	5
10. sektorea		Yoldiko aldagelak	1.273		242
	1	Monitoreen aldagelak	32	1p/2 m2	8
	1	Igerilekuko aldagelak	393	1p/3 m2	131
	0	Igerilekuko gimnasioa	52	1p/5 m2	10
	1	Kiroldegiko aldagelak	87	1p/2 m2	43
	1	Monitoreen aldagelak	32	1p/2 m2	8
	0	Kiroldegiko aldagelak	84	1p/2 m2	42
11. sektorea		Balda pilotalekuko eskailerak	646		6
	3	Bulegoak	23	10 m2/p	2
	3	Atondoa	8	2 m2/p	4
12. sektorea		Igerilekuak	3139		1046
	1	Igerilekuko hondartza	1026		229
	1	50x21eko igerilekua	1050	1p/3 m2	350
	1	25x12ko igerilekua	321	1p/3 m2	107
	2	Igerilekuko harmaila			360
13. sektorea		Yoldiko pista eta gimnasioa	3.241.		1380

Bezeroa: Donostiako Kiroletako Udal Patronatua Titulua: Balda-
Yoldi kiroldogiko autobabeserako plana Erreferentzia: 22.A100
Eguna: 2023ko urtarrila



	1	Kantxa	2440	1p/2 m2	1140
--	---	--------	------	---------	------

Paco Yoldi kiroldegiko su sektoreak					
Sektorea	Solairua	Esparrua	Azalera (m2)	Okupazioa Esparrua Sektorea	
	1	Makina gimnasioa	235	1p/5 m2	43
	2	Gimnasio kardiobaskularra	211	1p/5 m2	42
	2	Galeria	155	1p/1 m2	155
14. sektorea		Balda pilotalekua	2.990		479
	1	Aldagelak	48	1p/2 m2	24
	1	Pilotalekua	907		6
	2	Harmaila	596		300
	2	Taberna eta mahaiak	491		74
	2	Aerobic gimnasioko gela	183		31
	3	Harmaila	103		44
15. sektorea		Askatuak	329		99
	1	Erabilera publikoko eremua	329	1p/2 m2	99
16. sektorea		GBC	155		10
	1	Zuzendaritza	19	1p/10 m2	2
	1	Bulegoak	46	1p/10 m2	5
	1	Batzar-aretoa	21	1p/10 m2	3
18. sektorea		Easo	46		16
	2		33	1p/2 m2	16
19. sektorea		Xakea	688		228
	3	Bulegoa	8	10 m2/p	1
	3	Bilera-gela	18	2 m2/p	9
	3	Joko-aretoa	174	1,5 m2/p	110
	3	Analisi-gela	13	2 m2/p	7
	3	Informatika-gela	12	10m2/p	2
	4	Bulegoa	9	1,5 m2/p	1
	4	Gela 1	19	1,5 m2/p	13
	4	Bulegoa	17	1,5 m2/p	2
	4	Gela 2	24	1,5 m2/p	16
	4	Gela 3	24	1,5 m2/p	16
	4	Gela 4	24	1,5 m2/p	16
	4	Jarraipen-gela	46	1,5 m2/p	28
	4	Itxarongela	14	2 m2/p	7
GUZTIRA					4.474

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, kanpoko irteerek badituzte esleitutako langileak egoerarik okerreanean ere (pistak, frontoia eta igerilekuak okupatuta izatea) ebakutzeko izan behar dituzten neurriak:

Irteera	Deskribapena	Ebakuazio ahalmenik handiena	Esleitutako ebakuazioa	Jatorria
---------	--------------	------------------------------	------------------------	----------

Bezera: Donostiako Kiroletako Udal Patronatua Titulua: Balda-
Yoldi kiroldogiko autobabeserako plana Erreferentzia: 22.A100
Eguna: 2023ko urtarrila



SD1	Beheko solairutik ateratzeko irteera	720	232	1. sektoreko okupatzaileak
-----	--------------------------------------	-----	-----	----------------------------

Irteera	Deskribapena	Ebakuazio ahalmenik handiena	Esleitutako ebakuazioa	Jatorria
SD2	Beheko solairutik ateratzeko irteera	610	231	1. sektoreko okupatzaileak
Ez dauka	-	-	0	2. sektoreko okupatzaileak
Ez dauka	-	-	0	3. sektoreko okupatzaileak
SY1	2 ate, irteera nagusian	400	98	4. sektoreko 5 pertsona 10. sektoreko 93 pertsona
SY10	Atzeko aldeko atartetik ateratzeko irteera, bigarren solairukoa.	1020	195	4. sektoreko 116 pertsona 13. sektoreko 17 pertsona
SY2	Beheko solairuko irteera, instalazio-gunetik abiatuta.	170	23	5. sektoreko 23 pertsona
Ez dauka	-	-	0	6. sektoreko okupatzaileak
SY3	7. sektoretik ateratzeko irteera, beheko solairuan dena	580	0	7. sektoreko okupatzaileak
SB5	S8 sektoretik ateratzeko irteera	320	108	8. sektoreko okupatzaileak
SB6	S8 sektoretik ateratzeko irteera	320	74	8. sektoreko okupatzaileak
SO1	Bulegoetatik ateratzeko, beheko solairukoa	180	64	9. sektoreko okupatzaileak
SO2	9 sektoretik (bulegoak) atertzekoa, P1ekoa	180	53	9. sektoreko okupatzaileak
SB1	Ezkerreko eskaileretako atartetik ateratzeko irteera.	760	281	11. sektoreko 6 pertsona 14. sektoreko 161 pertsona 19. sektoreko 114 pertsona
SB2	Eskuineko eskaileretako atartetik ateratzeko irteera.	760	232	14. sektoreko 118 pertsona 19. sektoreko 114 pertsona
SY9	Igerilekuko harmailetatik ateratzeko irteera, bigarren solairukoa	360	360	12. sektoreko okupatzaileak
SY6	Igerilekutik ateratzeko irteerak	1020	220	12. sektoreko 170 pertsona 10. sektoreko 50 pertsona
SY7	Igerilekutik ateratzeko irteera	340	220	12. sektoreko 170 pertsona 10. sektoreko 50 pertsona
SY8	Igerilekutik ateratzeko irteera	340	219	12. sektoreko 170 pertsona 10. sektoreko 50 pertsona
SY4	12. sektoretik ateratzeko irteera, beheko solairukoa	200	176	12. sektoreko okupatzaileak
SY11	Pasabidetik ateratzeko irteera, bigarren solairukoa.	180	180	13. sektoreko okupatzaileak
SY5	Kirol anitzeko kantxatik ateratzeko irteera, lehen solairukoa	1520	1183	13. sektoreko okupatzaileak

Irteera	Deskribapena	Ebakuazio ahalmenik handiena	Esleitutako ebakuazioa	Jatorria
SB3	14. sektoretik ateratzeko irteera	200	200	14. sektoreko okupatzaileak
SB4	15. sektoretik ateratzeko irteera	200	50	15. sektoreko okupatzaileak
SB9	15. sektoretik ateratzeko irteera	200	49	15. sektoreko okupatzaileak
SB7	S16 sektoretik ateratzeko irteera	180	10	16. sektoreko okupatzaileak
SB8	18. sektoretik ateratzeko irteera, P2koa	180	16	18. sektoreko okupatzaileak
GUZTIRA		10.940	4.474	

4.1.2.1 Ikuskizuna egitea kirol anitzeko pistetan jarduerarik ez dela ohiko funtzionamendu-ordutegian

Pistan ikuskizun bat egiten bada, gainerako instalazioen ohiko funtzionamendu-ordutegitik kanpo, lau egoera izan daitezke:

a) Igerilekuan, diren harmailak erabilita

CPI/96ren arabera, hauek dira espazio horiek onartzen dituzten edukierak:

Hauek dira esparru horretako irteerak:

Irteera	Zabalera (m)
SY9	0,90 X 2 = 1,80
PY9	0,90

Zabalena (SY9) kenduta, 0,90 metroko zabalera geratzen da, eta 180 pertsona ebakutzeko gai da.

b) Kirol anitzeko pistan. Lehiaketa edo beste era bateko ikuskizuna izan daiteke

Hauek dira esparru horretako irteerak:

Irteera	Zabalera (m)
SY5 (lau ate)	1,9 bakoitzak
PY6	0,95

Lau irteeretako bat kenduta, 6,65 metroko zabalera geratzen da, ate bakoitza 1,90 metrokoa da eta

1.330 pertsona

c) Pasabidean, kirol anitzeko pistan

Hauek dira esparru horretako irteerak:

Irteera	Zabalera (m)
PY10 + PY11 (*)	1,8

SY11	0,9
------	-----

(*) Bata bestetik gertu daude bi irteera horiek, eta, beraz, irteera bakar bat izango balitz bezala hartu behar dira.

Zabalena kenduta (PY10 eta PY11 bat egindakoa) 0,90 metroko zabalera geratzen da, eta 180 pertsona ebakutzeko gai da.

d) Carmelo Balda frontoian. Normalean partida izango da, baina beste ekintzaren bat ere izan daiteke

CINSA enpresak kalkulatu zuen, Ikuskapenen eta Egiaztapenen Plan Orokorren arabera, edukiera, eta Eusko Jaurlaritzak 2002/03/12an berretsitako txosten ofizialaren arabera, 1.040 pertsona da.

4.1.3 Giza baliabideak

Autobabeseko giza baliabideak establezimenduaren eremuan istripuak prebenitzeko eta, istripua izanez gero, jarduteko berariaz entrenatutako pertsona taldea da.

Helburu orokor hauek ditu:

- Arriskuak kendu edo murriztea, larrialdi-egoerarik izan ez dadin
- Larrialdiei aurre egitea, larrialdia sortu ondoren
- Larrialdia amaitutakoan, normaltasuna ezartzea berriro.

Larrialdietako taldea hauek osatutakoa da:

- Larrialdietako burua
- Kontrol-zentroa
- Esku-hartze burua
- Esku hartzeko eta ebakuazioko taldeak

Ohiz kanpoko ezbeharren bat izaten denean, ekitaldian den ikusle-kopuruaren arabera izan behar diren adina taldekidez osatuta izan behar dute taldeek.

6.1.3 eta 6.2.3 apartatuetan eta I. eranskinetan, larrialdi-taldeetan zenbat pertsonak parte hartu behar duen jartzen du, bi egoera desberdin bereizita:

- a) funtzionamendu normala denean
- b) ezbeharren bat izaten denean

Adieraz dezagun ezbehar edo gertaera bakoitzerako izendatuta izan behar direla Esku-hartze/Ebakuazio Taldean izango diren pertsonak eta Esku-hartze burua; eta dena delako ekitaldiaren ikusle-kopuruak eskatzen duen adina pertsona izan behar direla. Zenbat sarrera saldu diren jakingo denez, edukiera ere jakinda izango da. Ekitaldia izan baino egun batzuk lehenago, Kiroletako Udal Patronatuak pertsona horien izendapena jakinaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari, txosten honen **V. eranskinean** den inprimakia bete eta aurkeztuta. Inprimaki hori Eusko Jaurlaritzaren "Autobabes planen erregistroa" aplikazio informatikoaren bidez aurkeztuko da.

4.2 Segurtasun-arloko xedapen espezifikoak aplikatzeko eskura diren neurriak eta baliabideak (giza baliabideak eta baliabide materialak)

Jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruzko eta kirol-ikuskizunei buruzko araudi hau aplikatuz behar da:

- **Jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruzkoak:**
 - ✓ 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
 - ✓ 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren gainekoa.
- Kirol-ikuskizunei buruzkoa:
 - ✓ 10/1990 Legea, urriaren 15ekoa, Kirolarena (urriaren 17ko BOE, 249. zk.).

Botika-kutxa:

700 pertsonatik beherako edukiera duten jendaurreko ikuskizun, jolas-jarduera eta establezimendu publiko guztiek oinarrizko botika-kutxa izan beharko dute, behar bezala seinaleztatua, gerta daitezkeen ezbeharrei erantzuteko izan behar den zuzkidura duena.

Botika-kutxa horrek, gauza hauek izan behar ditu gutxienez: desinfektatzaile eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, benda, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak eta erabili eta botatzeko eskularruak. Material hori aldian-aldian begiratu egin behar da, eta iraungi edo erabili bezain laster haren ordezkoa jarri.

Era berean, 300 lagunetik gorako edukiera duten jendaurreko ikuskizun, jolas-jarduera eta establezimendu publikoetan, erizaintza-zerbitzua izatera behartuta ez badaude, argi seinaleztatutako leku bat egokitu behar da, lehen sorospentarako eta beste osasun-arreta batzuetarako erabili ahal izateko. Orobat, lehen sorospenei buruzko ezagutza egiaztatua duen pertsona bat ere izango da, eta establezimendua irekita edo jarduera egin bitarte guztian esku hartzeko prest izan behar du hark.

Eraikinaren segurtasun eta zaintza zerbitzua Udaltzaingoak eta Ertzaintzak emango dute.

1.- Tokiko establezimenduetan ikuskizunak eta jarduerak egiten diren bitartean delituak egitea prebenitzeko, bai eta ikuskizun eta jarduera horiek dituzten arriskuak edo kalteberatasun-egoerak prebenitzeko ere, segurtasun-zaintzako zerbitzua izan behar dute:

- a) Araubide bereziko establezimenduek;
- b) 700 lagunetik gorako edukiera duten jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiten diren establezimendu publikoek;
- c) 700 lagunetik gorako edukiera duten establezimendu edo esparruetan noizbehinka egiten diren jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerak;**
- d) Baimena lortzeko segurtasun-memoria aurkeztu behar duten noizbehinkako jendaurreko ikuskizunek eta jolas-jarduerak;
- e) Hainbat lokal edo instalazio biltzen dituzten eremu zehatz, itxi eta mugatuak, bakoitzak segurtasun pribatua izateko betebeharrak ez izan arren, denen artean 700 pertsona baino edukiera handiagoa osatzen badute.

Kiroldegiaren funtzionamendua, ohikoa izan (700 pertsona baino gutxiago) edo ezohiko ekitaldietarako izan (700 pertsona baino gehiago), aldatu egiten denez, lehen esandako araudiak agindutakoa aintzakotzat hartu eta, 700 pertsonatik gorako edukiera duten ezohiko ekitaldietan, segurtasun-zaintzako zerbitzua izan behar da.

Kapitulu honekin lotutako planoak:

311. plana *Beheko solairua. Babes-bitartekoak*

312. plana *01 solairua. Babes-bitartekoak*

313. plana *02 solairua. Babes-bitartekoak*

- 314. *planoa 02-5 solairua. Babes-bitartekoak*
- 315. *planoa 03 solairua. Babes-bitartekoak*
- 316. *planoa 03-5 solairua. Babes-bitartekoak*
- 317. *planoa 04 solairua. Babes-bitartekoak*
- 317. *planoa Estalkipeko solairua. Babes-bitartekoak*
- 318. *planoa Beheko solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa*
- 319. *planoa 01 solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa*
- 320. *planoa 02 solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa*
- 321. *planoa 02-5 solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa*
- 322. *planoa 03 solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa*
- 323. *planoa 03-5 solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa*
- 325. *planoa 04 solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa*
- 325. *planoa Estalkipeko solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa*

5. INSTALAZIOEN MANTENTZE LANETARAKO PROGRAMA

5.1 Arrisku-instalazioen prebentziozko mantentze-lanen deskribapena, instalazioak kontrolatzeko modua izatea bermatzen duena

Hauek dira prebentziozko mantentze-lanen jarraibideak bete behar dituzten arrisku-instalazioak:

- Instalazio elektrikoak (transformazio-zentroa, behe-tentsioko koadro orokorra, koadro elektrikoak, multzo elektrogenoa eta abar)
- Gas-instalazioak (ENE, galdarak eta abar)
- Iturgintza eta aire-giroitze instalazioak.

Eraikineko instalazio teknikoan mantentze-lan prebentiboak eta zuzentzaileak kanpoko enpresen bidez egiten dira, lehiaketa eginda kontratatuta enpresak.

Instalazioen mantentze-lanen erregistro informatiko bat ere badu KUPek (PRISMA3 sistemaren bidez egina), eta, hala, instalazio bakoitzak, zer tipologia duen, halako prebentziozko mantentze-plana du, dagozkion aldizkakotasun eta guzti.

5.2 Babes-instalazioen prebentziozko mantentze-lanen deskribapena, instalazio horiek egiten dutela izatea bermatzen duena

Eraikinak suaren aurka seguru izatearen parte handi bat –eraikinaren erabilera goiti-beheiti– babes-sistemen mantentze-maila eta haien fidagarritasuna dira. Ondorioz, 513/2017 Errege Dekretuaren bidez onartutako Suteetatik Babesteko Instalazioen Erregelamenduan adierazitako aldiak behar bezala eta fidagarritasunez egin beharko dira.

Jarraian, mantentze-lanetarako jarduketa-jarraibide ez-mugatzaille batzuk adierazi ditugu, ekipo eta sistema bakoitzerako, 513/2017 Errege Dekretuaren bidez onartutako Suteetatik Babesteko Instalazioen Erregelamenduan eta aipatutako instalazio teknikoan araudi espezifikoan oinarrituta.

1 SUA AUTOMATIKO DETEKTATZEKO ETA ALARMA JOTZEKO SISTEMA. BETEKIZUN OROKORRAK, ELIKATZE-ITURRIAK ETA DETEKTAGAILUAK

Hiru hilean behin:

- Ikuskapen-lanetan nahi ez diren ekintzak edo maniobrak saihesteko neurriak berrikustea eta/edo ezartzea.
- Instalazioen funtzionamendua egiaztatzea (hornidura-iturri bakoitzarekin). Pilotuak, fusibleak eta gaizki dauden beste elementu batzuk aldatzea.
- Zentraleko alarma, matxura, deskonexio eta informazioko argi-adierazgailuei begiratzea.
- Metagailuen mantentze-lanak egitea (borneak garbitzea, ur destilatua betetzea eta abar).
- Alarma zentralizatzeko eta transmititzeko ekipoak egiaztatzea.
- Bateria-sistemei begiratzea: sistemaren konmutazio-proba egitea sarean akatsa dela, sistemak baterien bidez egitea, matxura detektatzea eta egoera normalera itzultzea.

Urtean behin:

- Programatutako maniobrek egiten duten egiaztatzea, detekzio-zonaren arabera.
- Zentralaren software-bertsioa egiaztatzea eta eguneratzea, fabrikatzailearen gomendioen arabera.
- Diren maniobra guztiak egiaztatzea. Argi- eta soinu-ohartarazleak, airea gelditzea, makinak gelditzea, igogailuak gelditzea, automatiko itzaltzea, suaren aurkako uhateak, kea ateratzeko ekipoak eta suaren aurkako beste babes-sistema batzuk.
- UNE-EN 23007-14 arauan adierazitako eragiketak egin beharko dira.
- Gune librea egiaztatzea, detektagailu puntualaren azpian eta norabide guztietan, gutxienez 500 mm.
- Detektagailuen egoera egiaztatzea (finkapena, garbitasuna, korrosioa, kanpoko itxura).
- Detektagailu automatiko guztiek egiten duten probatzea banan-banan, fabrikatzaileen zehaztapenen arabera.
- Detektagailuaren kameraren barruko sentzore-elementua ailegatzeko eta aktibatze moduan izatea egiaztatzea. Detektagailuaren errendimendua ez hondatzeko edo kalterik ez egiteko moduko egiaztapen-metodoak erabili behar dira.

- Su-detektigailuen balio-bizitza haien fabrikatzaileak jarritakoa izango da, eta, epe hori igarotakoan, aldatu egingo dira. Fabrikatzaileak ez badu balio-bizitza jakin bat jartzen, 10 urte dela joko da.

2 SUA AUTOMATIKO DETEKTATZEKO ETA ALARMA JOTZEKO SISTEMA. ALARMA ESKUZ AKTIBATU ETA TRANSMITITZEKO GAILUAK

Hiru hilean behin:

- Eskuzko alarma-sakagailuen seinaleztapena egiaztatzea.
- Argi- eta soinu-ohartarazleen funtzionamendua egiaztatzea.
- Hala badagokio, megafonia-sistemaren funtzionamendua egiaztatzea.
- Hala badagokio, itzaltze-eremu bakoitzean audioa ulergarria dela

egiaztatzea. Sei hilean behin:

- Sakagailuen kokapena, identifikazioa, ikusgarritasuna eta irisgarritasuna egiaztatzea.
- Sakagailuen egoera egiaztatzea (finkatzea, garbitasuna, korrosioa, kanpoko itxura).

Urtean behin:

- Sakagailuek egiten duten probatzea, sakagailu guztiek.

3 ESKUKO SU-ITZALGAILUAK:

Hiru hilean behin:

Egiaztapen hauek egitea:

- Su-itzalgailuak dagokien lekuan daudela eta ez dutela erakusten kalterik dutenik.
- Egokiak direla dagoen arriskurako.
- Sarrera ez dutela buxatuta, ikusgai daudela edo seinaleztatuta daudela, eta erabiltzeko jarraibideak aurreko aldean dituztela.
- Erabilera-jarraibideak irakurgarriak direla.
- Presioaren adierazlea operazio-eremuan dagoela.
- Metalezko parteak (pitak, balbula, mahuka...) egoera onean daudela.
- Zigilu edo erabilera-adierazlerik ez dela falta eta hautsita ere ez dela.

- Ez direla guztiz edo partzialki hustu. Baldintza hori betetzat joko da, baita ere, UNE 23120 arauaren «Hiru hilean behingo mantentze programa»n adierazitako lanak egiten badira.
- Su-itxalgailuen seinaleztapena egiaztatzea.

Urtean behin:

- Mantentze-eragiketak egitea, UNE 23120 arauaren "Urteko Mantentze Programan" jarritakoa aintzakotzat hartuta.
- Eskuko su-itxalgailuei garraio-sistema ondo duten ere begiratzea.

5 urtean behin:

- C mailako proba bat egitea (zigilatzea), abenduaren 12ko 2060/2008 Errege Dekretuak onartutako Presioko Ekipoen Erregelamenduaren III. eranskinean jarritakoaren arabera.
- Su-itxalgailua zigilatutako egunetik aurrera, berriro zigilatzea (hiru aldiz), Presioko Ekipoen Erregelamenduaren III. eranskinean jarritakoaren arabera.

4 SUH SAREA:

Hiru hilean behin:

- Suteetako ur-hargune hornituen seinaleztapena egiaztatzea.

Urtean behin:

- Urteko ikuskapen- eta mantentze-eragiketak egitea, UNE-EN 671-3 arauan jarritakoaren arabera.
- Suaren aurkako mahuken balio-bizitza mahuken fabrikatzaileak jartzen duena izango da, eta, hura igarotakoan, aldatu egingo dira. Fabrikatzaileak ez badu halako bizialdi jakin bat jartzen, 20 urte dela joko da.

5 urtean behin:

- Bost urtean behingo ikuskapen- eta mantentze-eragiketak egitea mahukari, UNE-EN 671-3 arauan jarritakoaren arabera.

5 UR-HARGUNEAK:

Hiru hilean behin:

- Lurpeko ur-harguneen irisgarritasuna eta seinaleztapena egiaztatzea.
- Begiz ikuskatu eta multzoaren estankotasuna egiaztatzea.
- Irteeretako tapak kendu, hariak koipeztatu eta errakorren junturen egoera egiaztatzea.
- Ur-harguneen seinaleztapena egiaztatzea.

Sei hilean behin:

- Eragiteko azkoina koipeztatzea edo haren olio-ganbera betetzea.
- Ur-hargunea irekitzea eta ixtea, eta balbula nagusiak eta drainatze-sistemak behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea.

Urtean behin:

- Tapoien estankotasuna egiaztatzea. 5

urtean behin:

- Errakorren junturak aldatzea.

7 SEINALEZTATZE LUMINESZENTE SISTEMAK:

Urtean behin:

- Seinaleak, balizak eta ebakuazio-planoak badirela, izan behar diren tokian direla eta garbitasun, irakurgarritasun eta argiztapen (ilunpean) aldetik ondo daudela egiaztatzea begiz.
- Euste-elementuen egoera egiaztatzea (aingurak, hagaxkak, angeluak, torlojuak, itsasgarriak eta abar).
- Seinale fotoluminiszenteen balio-bizitza haien fabrikatzaileak jarritakoa izango da. Fabrikatzaileak ez badu balio-bizitza jakin bat jartzen, 10 urte dela joko da.

Egiaztatze- eta mantentze-eragiketa guztiak, bai eta nork eta noiz egin dituen ere, behar bezala erregistratuta geratu behar dira.

5.3 Segurtasun-ikuskapenak egitea, indarrean den araudiaren arabera

Kanpoko enpresek aldiari-aldiari egiten dituzten mantentze-berrikuspenez gain, industria-segurtasunerako nahitaez egin behar diren ikuskapen teknikoak ere egiten dituzte Baimendutako Kontrol Erakunde batzuek (BKE).

Taula honetan ikus daitezke zein instalaziok egin behar duen industria-segurtasunerako ikuskapena eta zenbatean behin egiten diren.

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
BKE BT		27/06/19					X
BKE GALDARA	X					17/01/2023	
BKE CT			2020/07/16				
BKE RIPCI				21/06/10			
BKE IGOGAILUAK				X		X	
BERRIKUSTEA SEGURTASUN- SOKAK				X	X	X	X
BKE BT							

277/2010 Dekretuaren arabera, zentroak koaderno/erregistro bat izan behar du, eta Han erregistratu behar dira egindako mantentze-lan guztiak eta zentroko instalazioen erregelamenduen arabera egiten diren segurtasun-ikuskapen guztiak. Koadernotxo hori Autobabes Plan honi erantsi behar zaio.

Kasu honetan, mantentze-lanen plangintza eta kontrola programa informatiko baten bidez egiten da (PRISMA Kudeaketa Programa). Prebentziozko mantentze-plan bakoitzak bere berrikuspen-programazioa du. Hona hemen prebentziozko mantentze-lanak kudeatzeko erabiltzen den programa informatikoaren irudi batzuk:

6. LARRIALDIEI AURRE EGITEKO JARDUKETA-PLANA

6.1 Larrialdiak identifikatu eta sailkatzea

Esan dezagun, plan honek jasotzen dituen arrisku gehienek (gero aipatuko ditugu zein diren) sua piztea ekartzen dutela azkenean, edo sua bera izaten dela arrisku horietakoren bat izateko seinalea. Horregatik, hemen jasotako prebentzio-, babes- eta antolaketa-neurriak, batez ere suari aurre egiteko pentsatuta badaude ere, balio dute aurreikusitako gainerako arriskueterako ere. **Arrisku motaren arabera**, sailkapen hau izaten da:

- ✓ Arrisku fisikoak: leherketa fisikoa, mekanikoak, elektrikoak, termikoak eta abar.
- ✓ Arrisku teknikoak: kontserbazio-akatsak, mantentzekoak, instalaziokoak eta abar.
- ✓ Jokabide antisozialak eragindako arriskuak: intrusioa, ordena publikoa asaldatzea eta abar.
- ✓ Arrisku naturalak: tximistak, seismoak eta abar.

Larritasunaren arabera –kontrolatzeko zailtasunen eta izan ditzaketen ondorioen arabera–, larrialdiak izan daitezke:

- Larrialdi-hasiera: lokal, gela edo eraikineko langileek eta babes-bitartekoek erraz eta azkar kontrolatu eta menderatu dezaketen istripua da.
- Larrialdi partziala: menderatu ahal izateko, larrialdietako ekipo bereziek esku hartu behar duten istripua da. Larrialdi partzialaren ondorioak ez dira sektore edo eraikin batetik harago pasatuko, eta ez diete mugakide diren beste sektore eta/edo eraikin batzuei ez eta beste pertsona batzuei ere eragingo.
- Larrialdi orokorra: enpresako babes ekipo eta bitarteko guztiak eta kanpoko sorospen eta salbamendu bitartekoen laguntza behar dituen istripua da. Larrialdi orokorra izanez gero, pertsonak ebakuatu egin beharko dira sektore eta/edo eraikin batzuetatik.

6.2 Larrialdietan jarduteko prozedurak

Larrialdia izaten denean egin behar diren jarduerak osatzen dute Larrialdi Plana, eta planaren helburua da, istripu edo gorabeheraren bat gertatzen bada, alderdi hauek denak bermatzea:

- ✓ Istripu edo gorabeheraren bat izan dela **detektatzea**
- ✓ **Alarma** bidaltzea larrialdi-gailura
- ✓ Larrialdiari erantzutea (**esku-hartzea**)
- ✓ **Ebakuazioa**, behar baldin bada.
- ✓ **Kanpoko zerbitzuei** abisua ematea (behar baldin bada) eta harrera egitea

Instalazioetan zerbait egiten ari den edozein pertsonak identifikatu dezake larrialdi-egoera bat eta apartatu honetan adierazitako eran jardun gero.

Jarraian, **sua izanez gero** jarraitu behar den prozedura deskribatu dugu, osoena ere horixe dela uste dugu eta.

a) Detektatzea eta alerta jotzea

Lehenengo urratsa sua detektatzea da. Pertsonak berek (langileak, kiroldogiko erabiltzaileak eta abar) edo detektagailu automatikoek antz ematen diote suari.

Kiroldogietan segurtasun handiagoa izateko, sistema bikoitza ezarri da detekzio- eta alarma-faserako.

1) Langileek eta erabiltzaileek detektatzea sua eta jotzea alerta.

Instalazioko langile edo erabiltzaile batek su-alarma detektatzen duenean, ahoz, telefonoz edo jarrita diren alarma-sakagailuen bidez jakinaraziko du.

Sakagailua aktibatzen bada, alarma-zentralak seinalea jaso, burrunbagailuak salto egin eta, automatiko, kontratatutako segurtasun-enpresarekin harremanetan jartzen da.

Segurtasun-enpresak, instalaziora deitu eta alarma benetakoa den egiaztatzen du.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun-enpresak **112**ra deituko du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, anbulantziak eta abar).

2) Suari antzemateko bitartekoek (detektatzaileak) detektatzea sua eta jotzea alerta:

Sakagailu bat aktibatzen bada, alarma-zentralak seinalea jaso, burrunbagailuak salto egin eta, automatiko, kontratatutako segurtasun-enpresarekin harremanetan jartzen da.

Segurtasun-enpresak, instalaziora deitu eta alarma benetakoa den egiaztatzen du.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun-enpresak **112**ra deituko du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, anbulantziak eta abar).

Minutu batzuk pasa eta telefonoguneko burrunbagailua gelditzen ez bada, sirenak jotzen hasiko dira, ebakuazio-plana aktibatu dela adierazten dutenak.

b) Alarma mekanismoak

Bigarren urratsa informazio hori Larrialdi Taldeari eta/edo Kiroldetako langileei helaraztea da. Bi transmisio-mota daude:

- ✓ **Mugatua:** eremuko Larrialdi Taldeari bakarrik abisatzen zaionean.
- ✓ **Orokorra:** kiroldetako osoa ohartarazten denean, eremu guztiak azkar ebakutzen hasteko. Alarma orokor hori larrialdietako buruak beste inork ere ez du aginduko.

b.1) Abisuak emango dituen pertsonaren identifikazioa

Atxikipena	Abisuak emango dituen pertsona
Kontrol-zentroa	Harrerako/atezaintzako langileak

b.2) Babes Zibileko Larrialdiei Aurre Egiteko Koordinazio Zentroaren identifikazioa

Izena	BABES ZIBILA LARRIALDIAK 112 AUTONOMIA ERKIDEGOIA
LARRIALDIETAKO telefonoa	112

c) Larrialdiari erantzuteko mekanismoak

Larrialdia desagerrarazteko gauza dela uste duen edozein langilek esku hartuko du.

Nolanahi ere, Esku hartzeko Taldeari jakinarazi ondoren, larrialdia gertatu den tokira joan eta esku hartuko du hark ere, larrialdiari amaiera emateko. Esku-hartze burua izango da talde horren buru.

d) Ebakuatzea edo konfinatzea

Sua itzaltzea lortzen ez bada, Larrialdi Taldeak erabakiko du kiroldegi guztia edo parte bat ebakatu behar den.

Informazio hori kiroldegian diren pertsona guztiei helaraziko zaie, eta Alarma eta Ebakuazio Taldeak ebakuazioa ahalik eta seguruena eta azkarrena izaten lagunduko du, pertsona guztiak adierazita den Elkargunerantz bideratuta.

e) Aurreneko laguntzak ematea

Larrialdietako buruak agindu eta, Kontrol-Zentroak, kanpoko laguntzei deituko die, hala behar izanez gero.

Lehen esan dugun bezala, esleituta den Larrialdi Taldeak emango ditu larrialdietako aurreneko laguntzak. Dena dela, talde horretako kideak laguntza horiek emateko gauza direla uste badute bakarrik emango dira, eta arrisku handirik hartu gabe, betiere.

Kanpoko Laguntza iristen denean, hura izango da egin behar diren gauzak egingo dituen.


f) Kanpoko laguntzak hartzeko moduak

Larrialdietan, Larrialdietako buruaren lanlekua Kontrol-Zentroan izango da. Larrialdietako burua izango da kanpoko laguntzak hartuko dituen, eta larrialdia den eremuaren plano bat eman eta gauza hauek denak jakinaraziko dizkiena: istripua zein tokitan izan den eta Kontrol-Zentrotik hara zer ibilbide egin behar duten (planoan adierazita), istripua izan den tokia zer ezaugarri dituen (ezagutzen direnak), istripua izan den tokiaren gertuan diren arriskuak, ebakuazioan izandako gorabeherak eta, izan baldin bada, zauriturik eta/edo harrapatuta geratu denik den.

6.3 Larrialdietan jarduteko prozedurak aurrera eramango dituzten pertsonak eta taldeak identifikatzea eta haiek izango dituzten eginkizunak

Larrialdietarako Segurtasunaren Antolaketaren organigrama orokorra, eraikin honetarako planteatutakoa, hauxe da:

a) "Eguneroko" funtzionamendu normalerako organigrama



LARRIALDIETAKO BURUA: Larrialdietako burua da: Mikel Arteaga (Donostiako Kiroletako Udal Patronatuko Obra eta Mantentze Lanetako teknikaria)

1. **ordezkoa:** KUPeko kirol-guneko teknikaria.

2. **ordezkoa:** Guneko teknikariaren ordezkia, KUPen ezarritakoaren arabera.


ESKU-HARTZE BURUA: **Instalazioaren arduraduna** izango da Esku-hartze burua.

1. **ordezkoa:** Arduraduna ez denean, esku hartzeko taldeko kide batek hartuko du esku-hartze buruaren eginkizuna. (Eginkizun hori kontrolerako langileek hartuko dute, telefonoa daukate eta)

ESKU HARTZEKO TALDEA: kiroldegian esku hartzeko taldea instalazioak mantentzeko eta kontrolatzeko langileek osatuko dute.

EBAKUAZIO-TALDEA: Ebakuazio-taldea monitoreek, sorosleek eta lokaletako langileek osatzen dute. Jendea ebakutzen lagunduko dute haiek.

b) "Ekitaldietarako" organigrama



LARRIALDIETAKO BURUA: Larrialdietako burua da: Mikel Arteaga (Donostiako Kiroletako Udal Patronatuko Obra eta Mantentze Lanetako teknikaria)

1. **ordezkoa:** KUPeko kirol-guneko teknikaria.
2. **ordezkoa:** Guneko teknikariaren ordezkoa, KUPen ezarritakoaren arabera.

ESKU-HARTZE BURUA: Ekitaldiaren arduraduna izango da Esku-hartze burua ere.

1. **ordezkoa:** Ekitaldiaren arduraduna ez denean, esku hartzeko taldeko kide batek hartuko du esku-hartze buruaren eginkizuna.

ESKU HARTZEKO ETA EBAKUATZEKO TALDEA: instalazioan antolatutako ekitaldietan esku hartzeko eta ebakuatzeko taldea ekitaldiaren segurtasunerako kontratatutako segurtasun-enpresako langileena izango da.

Hauek dira larrialdiren bat izandakoan betebeharrak zehatz batzuk dituzten pertsonen jarduketak-fitxak.

Pertsona bakoitzak bere lanpostuan eduki behar du fitxa, edozein unetan aztertu eta, larrialdiren bat izandakoan, zuzen jardun ahal izateko.

Ekitaldi bakoitzak izendatuta izan behar ditu bai Esku-hartze/Ebakuazio Taldean izango diren pertsonak, bai eta Esku-hartze burua ere.

Ekitaldia izan baino egun batzuk lehenago, Kiroletako Udal Patronatuak pertsona horien izendapena jakinaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari, txosten honen **V. eranskinean** den inprimakia bete eta aurkeztuta. Era berean, KUPi ere bidaliko dio jakinarazpen hori bidalita delako agiria ere.

6.3.1 SUA IZANEZ GERO NOLA JARDUN JAKITEKO FITXAK

Kiroldegietan segurtasun handiagoa izateko, sistema bikoitza ezarri da detekzio- eta alarma-faserako.

1) Langileek eta erabiltzaileek detektatzea eta alerta jotzea.

Instalazioko langile edo erabiltzaile batek su-alarma detektatzen duenean, ahoz, telefonoz edo jarrita diren alarma-sakagailuen bidez jakinaraziko du.

Sakagailuren bat aktibatzen bada, alarma-zentralak haren seinalea jaso eta, automatiko, kontratatutako segurtasun-enpresarekin harremanetan jartzen da.

Segurtasun-enpresak, instalaziora deitu eta alarma benetakoa den egiaztatzen du.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun-enpresak **112**ra deituko du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, anbulantziak eta abar).

2) Suari antzemateko bitartekoek (detektagailuek) detektatzea sua eta jotzea alerta:

Detektagailuren bat aktibatzen bada, alarma-zentralak haren seinalea jaso eta, automatiko, kontratatutako segurtasun-enpresarekin harremanetan jartzen da.

Segurtasun-enpresak, instalaziora deitu eta alarma benetakoa den egiaztatzen du.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun-enpresak **112**ra deituko du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, anbulantziak eta abar).

Sua izanez gero nola jardun jakiteko fitxak:

KONTROL-ZENTRALAREN (KZ) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Alarma jasotzea (langile batek emandakoa, sakagailuari emandakoa edo su-detektagailu bidezkoa)
 - ✓ Zer gertatzen den eta non gertatzen den jakin
- 2) Esku Hartzeko Taldeari abisatu, gertatu den lekura joan daitezen
- 3) 112ra deitu, deitu egin behar dela iritziz gero, eta kanpoko laguntza eskatu
- 4) Larrialdietako buruari abisatu
- 5) Kanpoko zerbitzuak hartu, Kontrol Zentroan den Suhiltzaileen Dokumentazioa karpetaarekin
- 6) Larrialdietako buruaren aginduei jarraitu:
 - Ebakuazio-plana aktibatzea erabakitzen badu: ebakuatu beharreko eremuetako alarma- eta ebakuazio-taldeetako kideei deitu (bulego-eremuak eta eraikineko gainerako okupatzaileak barne, nahiz eta KUPen parte ez izan), eta alarma-sirenak aktibatu.
- 7) Ezarrita duen elkartze-puntura ebakuatzea.

LARRIALDIETAKO BURUAREN (LB) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Ezbehar bat izan dela jakinarazi dizute.
- 2) Esku-hartzeko buruarekin harremanetan zara, telefonoz, etengabe, ezbeharraren bilakaeraren berri emateko hark.
- 3) Kanpoko laguntza eskatu behar dela erabaki duzu. Kontrol-zentralari agindu diozu eskatzeko.
- 4) Ebakuazio Plana aktibatu behar dela erabaki duzu. Kontrol-zentralari agindu diozu aktibatzen.
- 5) Larrialdia amaituta dela ebatzi duzu. Kalteak ebaluatu, ohiko baldintzak berrezarri eta

ESKU-HARTZE BURUAREN (EB) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Ezbehar bat izan dela jakinarazi dizute
- 2) Ezbeharra izan den lekura joan berehala
- 3) Larrialdietako buruarekin harremanetan izan, telefonoz, etengabe, istripuaren bilakaeraren berri emateko eta erabakiak elkarren artean hartzeko (esku-hartzeko taldeak indartu beharra eta abar).
- 4) Sua itzaltzen saiatu, Esku hartzeko taldearekin batera. Lekuan den Esku hartzeko taldearen ekintzak zuzendu.
- 5) Hala itzali ezin bada, 112ra deitu eta larrialdietako buruari jakinarazi dio ebakuazio-plana aktibatu behar dela.
- 6) Bere eremua ebakuatzen lagundu, Ebakuazio-taldearekin batera
- 7) Bere eremua ebakuatu dela egiaztatu ondoren, elkartze-puntura/Elkargunera joan
- 8) Ebakuatutako eremuei buruzko informazioa apuntatu. Alarma- eta ebakuazio-taldeen emandako informazioa. Elkartze-puntuan inor falta den egiaztatu
- 9) Kalteak ebaluatu, ohiko baldintzak berrezarri eta ezbeharraren gaineko txostena idatzi, Larrialdietako buruarekin batera.

ESKU HARTZEKO TALDEAREN (ET) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Ezbehar bat izan dela jakinarazi diote
- 2) Ezbeharra izan den lekura joan berehala, su-itzalgailu bat hartuta bidean
- 3) Esku Hartzeko Taldeko kide batek, ezbeharra izan den lekuko argindarra eta gasa kendu, Esku Hartzeko buruaren agindupean.
- 4) Sua itzaltzen saiatu, eskura dituzten baliabideekin (su-itzalgailuak).
- 5) Urik ez erabili inoiz ere tentsioa duten ekipoak itzaltzeko.
- 6) Sua itzaltzea lortzen ez badu, utzi jarduketari.

ALARMA ETA EBAKUAZIO TALDEAREN (AET) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Ebakuazio-plana aktibatzeke abisua jaso (Kontrol Zentroak deituta edo alarmaren sirena hotsaren bidez)
- 2) Esleitutako eremua ebakutzeko agindu, eta, mugikortasun urriko pertsonarik bada, dagokion irteeraraino lagundu haiei
- 3) Dagokion eremua erabat ebakatu dela egiaztatu, eta ez utzi jendea atzera hara joaten
- 4) Dagokion eremuaren ebakuazioa bukatutakoan, hango ateak eta leihoak itxi (ahal bada) eta adierazita duen elkartzepuntura joan
- 5) Dagokion eremuaren ebakuazioaren berri eman elkartzepuntuan

ERABILTZAIILEEN ETA PUBLIKOAREN SEGURTASUN-FITXA

1) Ezbeharren bat ikusiz gero:

- ✓ Berehala eman abisua instalazioko langileei edo aktibatu sakagailu bat
- ✓ Alde egin inguru hartatik azkar, baina korrika egin gabe. Ateak eta leihoak itxi, ahal bada. Atzera ez egin, inolaz ere
- ✓ Lasai egon, ez egin korrika edo garrasirik, besteak ez izutzeko.

2) Ebakutzeko agintzen badizute (ahoz edo alarma-sirenen bidez):

- ✓ Alde egin inguru hartatik azkar, baina korrika egin gabe, eta elkartzepuntura joan
- ✓ Langileen esana egin
- ✓ Atzera ez egin, inolaz ere
- ✓ Ez bultzik egin eta ez jende-pilaketarik sortu
- ✓ Elkartzepuntuan egon harik eta larrialdietako buruak larrialdia bukatuta dela ebatzi arte.

6.3.2 BONBA-MEHATXUA IZANEZ GERO NOLA JARDUN JAKITEKO FITXAK

KONTROL-ZENTRALAREN (KZ) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Bonba-mehatxu deia jasoz gero, ahalik eta datu gehien bildu eta 112ra deitu
- 2) Larrialdietako buruari jakinarazi.
- 3) Kanpoko zerbitzuen (Udaltzaingoa, Ertzaintza eta abar) aginduak bete
- 4) Ebakuazio-plana aktibatzea erabakiz gero: Eraikineko alarma-sirenak aktibatu (guztiak edo larrialdietako buruak erabakitzen dituenak) eta ebakuatu beharreko eremuetako ebakuazio-taldeetako kideei deitu.
- 5) Ebakuatu, Larrialdietako buruarekin batera, elkartzepuntura

LARRIALDIETAKO BURUAREN (LB) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Bonba-mehatxua dela jakinarazi diote.
- 2) Esku-hartzeko buruarekin harremanetan da, telefonoz, etengabe, larrialdiaren bilakaeraren berri eman diezaion hark.
- 3) Kanpoko zerbitzuen (Udaltzaingoa, Ertzaintza eta abar) aginduak bete:
- 4) Ebakuatutako eremuei buruzko informazioa apuntatu. Ebakuazio-taldeen emandako informazioa.
- 5) Larrialdia amaituta dela ebatzi du. Kalteak ebaluatu, ohiko baldintzak berrezarri eta ezbeharraren gaineko txostena idatzi, Esku-hartze buruarekin batera.

ESKU-HARTZE BURUAREN (EB) SEGURTASUN-FITXA ESKU HARTZEKO TALDEA ETA

ALARMA JOTZEKO ETA EBAKUATZEKO TALDEA (EHT eta AJET)

- 1) Ebakuazio-plana aktibatzeke abisua jaso (Kontrol Zentroak deituta edo megafoniaren edo alarmaren sirena hotsaren bidez)
- 2) Esleitutako eremua ebakuatzeko agindu, hots handian hitz eginda edo, badago, dagokion eremuko megafoniaren bidez
- 3) Dagokion eremua erabat ebakuatu dela egiaztatu, eta ez utzi jendeari atzera hara joaten

ERABILTZAIILEEN ETA PUBLIKOAREN SEGURTASUN-FITXA

- 1) **Pakete susmagarri bat aurkituz gero:**
 - ✓ Eraikineko langileei abisatu segituan
 - ✓ Alde egin inguru hartatik azkar, baina korrika egin gabe. Atzera ez egin, inolaz ere
 - ✓ Lasai egon, ez egin korrika edo garrasirik, besteak ez izutzeko.
- 2) **Ebakuatzeko agintzen badizute (ahoz edo alarma-sirenen bidez):**
 - ✓ Alde egin inguru hartatik azkar, baina korrika egin gabe, eta elkartzepuntura joan
 - ✓ Langileen esana egin
 - ✓ Atzera ez egin, inolaz ere
 - ✓ Ez bultzik egin eta ez jende-pilaketarik sortu
 - ✓ Elkartzepuntuan egon harik eta larrialdietako buruak larrialdia bukatuta dela ebatzi arte.

6.4 Larrialdietako jarduera-plana abian jartzeko arduraduna identifikatzea

Larrialdiei aurre egiteko jarduketeta-plana abian jartzeko ardura izango duen pertsona Larrialdietako burua izango da (larrialdiren bat izaten denean egin behar diren jarduketak egiten hasteko ardura izango duena).

6.5 Elkartze-puntua

Elkartze-puntua eraikinaren okupatzaileak eraikina ebakuatu eta handik irten ondoren joango diren lekua da. Eraikinetik kanpo izaten da.

Elkartze-puntuan, Larrialdi Taldeak langileren bat falta den egiaztatuko du.

Elkartze-puntu bakar bat jarri dugu (kiroldegiaren sarreraren ondoan), eta hara joan behar dira eraikinean diren pertsonak. Ikus [302. plana](#). Hala ere, leku hori arriskuan izango balitz, beste puntu batera eraman beharko liriateke ebakuatutako pertsonak, arrisku-lekutik urruntzeko, errepideak gurutzatzea saihestuta, betiere.

Bestalde, igerilekuan bada aurretiazko elkartze-puntu barruko bat (ikus [320. plana](#)), eta, ebakuatzeko agindua emandakoan, aurren-aurrena hara joan behar dute igerilekuan diren erabiltzaile guztiak.



Elkartze-puntua

7. AUTOBABESERAKO PLAN HAU MAILA HANDIAGOKO BESTE PLAN BATZUETAN INTEGRATZEA

7.1 Larrialdia jakinarazteko protokoloak

Kanpoko laguntza-zerbitzuek parte hartu behar dutela erabakiz gero, 112 telefono-zenbakira deituta (SOS DEIAK 112) jakinarazten da larrialdia.

Larrialdietako buruak baloratzen du premia hori den. Komunikazioa

ezarri eta jarraibide hauei segitu behar zaie:

- ✓ Ahalik eta informazio gehien ematea denbora gutxian.
- ✓ Lasai egotea eta soseguz eta ondo entzuteko moduan hitz egitea.
- ✓ Mezu argiak, laburrak eta osoak ematea.
- ✓ Adierazi nork deitu duen, zer telefono-zenbaki duen eta ezbeharrak non gertatu den.
- ✓ Kontatu zer gertatu den, zenbat pertsona dauden inplikaturik, zenbat zauritu edo gaixo, eta zer egoeratan dauden; hitz egiten duten, arnasa hartzen duten edo odoletan dauden.
- ✓ Laburpen xehatua egin: gauza nola gertatu den, noiz eta zenbat denbora pasatu den deitu arte.
- ✓ Operadorearen galderei erantzun eta hark adierazitako jarraibideak bete.
- ✓ Komunikazioa operadoreak adierazten duenean bakarrik eten, eta telefonoa ondo esekita eta libre utzi.

KANPOKO LAGUNTZAK ESKATZEKO MEZUA:

II. eranskinean da jarraitu behar den eredu.

7.2 Autobabes Planaren zuzendaritzaren eta autobabes plan hau txertatuta den Babes Zibileko Planaren zuzendaritzaren arteko koordinazioa

Behin Kanpoko Laguntza Zerbitzuei laguntzeko eskatu eta haiek establezimendura iritsi eta Larrialdietako buruak geratutakoaren jakinaren gainean jarritakoan, haiek izango dira larrialdia ebazteaz arduratuko direnak.

Larrialdiaren bilakaeraren arabera, behar izango balitz, Kanpoko Laguntza Zerbitzuko Esku-hartze buruak Agintaritza Politikoari proposatu ahal izango dio

Tokiko Babes Zibila aktibatzeo. Tokiko Babes Zibileko Plana aktibatzen bada, larrialdiaren zuzendaritza Planaren zuzendariari egokituko zaio.

Eraikinaren Autobabes Planaren eta goragoko maila bateko beste plan batzuen arteko koordinazioa bermatzeko, goragoko mailako beste plan batzuetako zuzendariak eskatutako informazio guztia emango du Autobabes Planaren arduradunak.

Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboari jarraitu behar zaio beti.

7.3 Autobabes plan hau txertatuta den Babes Zibileko Planaren zuzendaritzak eta Autobabes Antolamenduak lankidetzan jarduteko moduak

Eraikinaren autobabes-antolaketaren eta Babes Zibileko sistema publikoaren arteko lankidetzak askotarikoa eta bi norabidekoa izan daiteke.

Iruditzen bazaio, gauza hauek egiteko laguntzea ere eska dezake Udalak:

- Plana ezartzeko aholkularitza izaten
- Prestakuntzan (teorikoan zein praktikoan) laguntzea
- Establezimenduan ikuskapenak egiten
- Simulakroetan parte hartzen eta abar.

8. AUTOBABES PLANA EZARTZEA

8.1 Plana ezartzeko arduraduna identifikatzea

Erantzukizuna jardueraren titularrari dagokio, eta, dagokion partean, hark eskuordetzen dituen pertsoneri, eskura dituzten bitartekoen eta autonomiaren arabera, betiere.

Kiroletako Udal Patronatuko kudeatzailea (Leire Landa) izango da Autobabes Plana ezartzeko ardura izango duena. Eginkizun horiek beste langile batzuei eskuordetzeko modua ere izango du hark, baina, edozein moduz ere, hura izango da arduradun nagusia beti.

8.2 Autobabes Planean parte-hartze aktiboa duten langileak prestatzeko eta trebatzeko programa

Larrialdietan jarduteko arduradunek (Larrialdietako taldea) prestakuntza teoriko-praktikoa jaso behar dute, alderdi hauek izango dituen prestakuntza:

- ✓ Eraikineko instalazioak eta hornidurak kentzea.
- ✓ Eraikinean diren arrisku motak.
- ✓ Baliabide materialak eta haien funtzionamendua: detekzioa, transmisioa, itzaltzea eta abar.
- ✓ Larrialdietako taldearen eginkizunak larrialdietan.
- ✓ Eraikina ebakutzeko plana. Elkartze-puntua.
- ✓ Eskuko su-itxalgailuak erabiltzeko modua. Benetako suarekin maneiatzeko praktikak.
- ✓ Lehen sorospenei buruzko oinarrizko ezagutzak.

8.3 Langile guztiei Autobabes Planari buruzko prestakuntza eta informazioa emateko programa

Larrialdietako taldean ez diren langileek ere jaso behar dute prestakuntza labur bat, alderdi hauek aztertzeko:

- ✓ Jarraibide oinarrizko batzuk, larrialdiren bat izaten denean nola jardun jakiteko.
- ✓ Larrialdiei aurre egiteko antolatuta den segurtasuna. Osatzen duten kideak.
- ✓ Eraikina Ebakutzeko Plana. Elkartze-puntua.

Horren helburua langile guztiek Autobabes Planaren berri izatea eta haren arabera jarduten jakitea da.

Langileei alta eman eta haiek lanean hasi baino lehen, haiei dagozkien jarduketa-fitxak eman edo ondo ikusteko moduko leku batean jarri behar dizkiete langile horien arduradunek.

8.4 Erabiltzaileentzako informazio orokorraren programa

Autobabes Planari buruzko informazio orokorra Eraikinaren erabiltzaile guztiei helarazteko, «Zu hemen zaude» kartelak jarriko dira leku estrategikoetan, prebentzio edo ekintza jarraibide berezi batzuk ere adierazita larrialdietan edo edozein eratako ezbeharren bat izaten denean nola jokatu jakiteko.

8.5 Bisitarien jarduerarako seinaleak eta arauak

Seinaleztapenari dagokionez, *Laneko segurtasunerako eta osasunerako seinaleztapeneko gutxieneko xedapenei* buruzko 485/1997 Errege Dekretuak agindutakoa bete behar du eraikinak, bai eta EKT-2006an jarritakoa ere.

Aldian-aldian, ebakuazio-ibilbide guztiak eta suaren aurkako bitartekoak izan behar diren leku guztiak ondo seinaleztatuta diren begiratu behar da.

8.6 Materialez eta baliabidez hornitu eta egokitzeko programa

Larrialdiei aurre egiteko materialez eta baliabideez hornitzea 4. kapituluan (*Autobabeserako neurrien eta bitartekoen inbentarioa eta deskribapena*) deskribatu dugu, eta 311-318 planoetan adierazi.

Baliabide materialak haien mantentze-lanari buruzko araudi espezifikoaren mende daude, eta, beraz, lan horiek egitekoan izango da haietan izan daitezkeen gabeziei antzemateko modua.

9. AUTOBABES-PLANAREN ERAGINKORTASUNARI EUSTEA ETA EGUNERATZEA

9.1 Prestakuntza eta informazioa birziklitzeko programa

Aldian-aldian, hasieran emandako prestakuntza eta eraikinaren langile eta erabiltzaileei emandako informazioa birziklatu egin beharko dira.

Horretarako, halako aldizkakotasun bat duten ikastaroak egin behar dira –**gutxienez hiru urtean behin egitea da gomendioa**–, ikasitakoak birziklitzeko modua izateko.

NOIZ EMAN ZEN	ZER PRESTAKUNTZA MOTA IZAN ZEN		PRESTAKUNTZA- BIRZIKLAPEN A EGITEKO AURREIKUSP ENA	EGITEKO ARDURADUNA
	OROKORRA LANGILE GUZTIAK	ARDURADUNAK ETA TALDEAK		

OHARRA: Langile berriak sartzen badira, dokumentu honetan inplikatzeko prestakuntza jaso beharko dute, larrialdia eta larrialdian egin behar diren jarduketak behar bezala kudeatzeko.

9.2 Baliabideak eta bitartekoak aldatzeko programa

Giza baliabideei dagokienez, datu-base eguneratu bat izan behar du eraikinak, taldekideak aldatutakoan zerrendan sartuta; eta langile berriei prestakuntza eman behar zaie.

Baliabide teknikoari dagokienez, ondo eguneratuta eduki behar baliabide horien datu-basea, eta baliabideak aldatzeko programaren mende jarri, plan honen 5. kapituluaren ezarritako jarraibideak aintzakotzat hartuta.

Izan behar diren baliabideak izateko, urtero-urtero –hurrengo ekitaldiko aurrekontua prestatzekoan–, larrialdi-jarduerekin zuzenean lotutako inbertsioak programatu dira.

ELEMENTUA <i>ERABILIA</i>	BEHARRA <i>ESKATUTAKOA</i>	EPEA <i>EGITEA</i>	EGINDA <i>(EGUNA)</i>	EGIAZTATUTA <i>(SINADURA)</i>

9.3 Ariketa eta simulazio programa

Autobabes plana ebaluatzeko eta haren eraginkortasuna ziurtatzeko, larrialdi-simulazioak egingo dira **urtean behin** (277/2010 Dekretuak ezarritako baldintza). Simulakroek honetarako balioko dute:

- ✓ Ebakuazioetan entrenatzea.
- ✓ Ebakuazio-denborak neurtzea.
- ✓ Babes-bitartekoen kokalekua eta egoera egiaztatzea.
- ✓ Ekipoen erantzun-azkartasuna egiaztatzea.
- ✓ Pertsonen esleitutako eginkizunen egokitasuna egiaztatzea.

Simulakroa prestatzekoan, gauza hauek zehaztu behar lirateke:

- ✓ Ariketaren oinarriak edo kasuak.
- ✓ Erabiltzaileentzako informazioa
- ✓ Simulazioaren eguna eta ordua, ustekabeari eusten saiatuz.
- ✓ Kanpoko laguntzekin bilerak egitea, nahiz eta ariketan parte hartu ez haiek.

Simulazio bakoitzaren ondoren, ebaluazio-txosten bat egingo da (ikus eredu VI. eranskinean).

9.4 Autobabes Plana osatzen duen dokumentazio guztia berriz begitzeko eta eguneratzeko programa

Autobabes Plana denbora-tarte jakin batzuetan berriz begiratu eta eguneratu behar da. **21/2019 Dekretuan jarritako aldizkakotasunarekin** begiratu behar da berriz. Autobabes Planak unean-unean den errealitatearekin bat etorri behar du beti, eta hori gertatzen ez denean, berriz begiratu behar da. Hala, berrikuspen hauek izango dira:

- ✓ Ohiko berrikuspenak: 3 urtean behin egingo dira, azkeneko aldiz egindako egunetik aurrera sortutako aldaketa guztiak Autobabes Planean sartzeko.
- ✓ Ohiz kanpoko berrikuspenak: eskuratutako esperientzien, araudi aldaketen edo instalazio berrien ondorioz egingo dira, Autobabes Planaren funtsezko alderdiren bati eragiten badiote.

9.5 Auditoretza eta ikuskapen programa

Auditoretza da segurtatzea jarritako antolamendua, prozesuak eta prozedurak segurtasuna kudeatzeko sistemarako egokiak direla. Independentziaz eta objektibotasunez egin behar da.

Ikuskapenak, berriz, ekipo, instalazio edo antolaketa-sistema baten berrikuspen partzialak dira.

Auditoretzak eta ikuskapenak erakundearen beraren langileek edo kanpoko beste batzuek egin ditzakete. Egiteko, plan bat jarri behar da, eta han zehaztu zer egunetan egin behar diren.

- Instalazioen baldintzak aldatzea.
- Lan-prozedurak aldatu edo moldatzea.
- Teknologia berriak sartzea.
- Establezimenduaren zuzendaritza-taldea edo Autobabes Planean eginkizun batzuk dituzten langileak aldatzea.
- Egindako ariketen eta simulakroen ebaluazioen emaitzak.

		ANTZEMANDAKO AKATSAK (BAI/EZ)	AKATSAK ZUZENDU DIRA (BAI/EZ)	ALDAKETAK EGIN DIRA
PLANA EGINDAKO EGUNA				
1. BERRIKUSPENAREN EGUNA				
2. BERRIKUSPENAREN EGUNA				
3. BERRIKUSPENAREN EGUNA				
4. BERRIKUSPENAREN EGUNA				

I. ERANSKINA. DIREKTORIOA

KOMUNIKAZIO-

1 Larrialdietako langileen telefonoak

KARGUA	IZENA	TELEFONOA
Larrialdietako burua	Titularra: Mikel Arteaga Mercader	659 069 598
	1. ordezkoa: Jon Ander Garcia de Cortazar	673 022 852
	1. ordezkoa: Juan Alvarez	620 529 096

a) "Eguneroko funtzionamendua" egoera

IRUDIA	LANPOSTUAREN PROFILA	ZENBAT PERTSONA	ENPRESA
Esku-hartze burua	Titularra: Instalazioaren arduraduna	1	Kiroletako Udal Patronatua
	Ordezkoa: KUPeko mantentze-lanetako langileak eta kontrol-zentroan den KUPeko langilea		

IRUDIA	LANPOSTUAREN PROFILA
Esku hartzeko taldea	Mantentze-lanetako langileak
Ebakuazio-taldea	<ul style="list-style-type: none"> - Mantentze-lanetako langileak - Sorosle guztiak - Igerilekuko monitore guztiak - Jarduera-gelako monitore guztiak - Indoor zikloko gelako monitore guztiak - Muskulazio-gelako monitore guztiak - Beren barrutietarako lagatako lokaletako langileak <p>Pertsona bakoitzak ebakutzeko gune bat du esleituta</p>

b) "Ekitaldietarako funtzionamendua" egoera

IRUDIA	LANPOSTUAREN PROFILA	ZENBAT PERTSONA	ENPRESA
--------	----------------------	-----------------	---------

Bezeroa: Donostiako Kiroletako Udal Patronatua Titulua: Balda-
Yoldi kiroldogiko autobabeserako plana Erreferentzia: 22.A100
Eguna: 2023ko urtarrila



Esku-hartze burua	Ekitaldiaren arduraduna	1	Ekitaldia antolatu duen enpresa
--------------------------	-------------------------	---	---------------------------------

IRUDIA	LANPOSTU AREN PROFILA	ZENBAT PERTSONA	ENPRESA
Esku hartzeko eta ebakutzeko taldea	Segurtasun-enpresako langileak	Edukiera osoa beteta izanez gero, gutxienez pertsona bat ateratzeko gaitutako irteera bakoitzeko	segurtasun-enpresa

*OHARRA: Kiroletako Udal Patronatua ez den beste erakunde batek antolatutako ekitaldia edo jarduera egin baino egun batzuk lehenago, antolatzaileak pertsona horien izendapena jakinaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari, EJren "Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorra" aplikazio informatikoaren bidez, txosten honen V. eranskinean jasotako inprimakia bete eta hura aurkeztuta. Era berean, KUPi ere bidaliko dio jakinarazpen hori bidalita delako agiria ere.

Kanpoko laguntzako telefonoak

ZERBITZUAK	ERAKUNDEAK ETA TELEFONOAK
LARRIALDIAK, ORO HAR	SOS DEIAK: 112
SEGURTASUN-ZERBITZUAK	Suhiltzaileak: 080 Udaltzaingoa: 092 Ertzaintza: 112
OSASUN-ZENTROAK	Donostia Ospitalea: 943 00 70 00
OSASUN-LARRIALDIAK	Osasun-larrialdia: 112 Gurutze Gorria: 943 22 22 22 DYA: 943 46 46 22

2 Komunikatzeko beste modu batzuk

Eraikinak megafonia-sistema du. Ereku guztietara iristen da eta hura erabil daiteke mezuak erabiltzaile guztiei transmititzeko.

II. ERANSKINA. LARRIALDIAK KUDEATZEKO INPRIMAKIAK

Hona hemen larrialdiak kudeatzeko eredu bat. Kanpoko laguntzako eskatuz gero, inprimaki hau bete eta erregistratuta utzi behar da.

KANPOKO LAGUNTZA ESKATZEA			
1. Laguntza-eskaera jakinarazten duen pertsona:			
2. Eguna:		3. Deia zer ordutan izan den	
4. Eskatutako laguntzaren deskribapena:			
5. Larrialdi mota:			
<input type="checkbox"/> Sua <input type="checkbox"/> Leherketa <input type="checkbox"/> Istripua <input type="checkbox"/> Gizarte-istiluak <input type="checkbox"/> Bonba-mehatxua <input type="checkbox"/> Eguraldi txarra (euria, haizea...) <input type="checkbox"/> Bestelakoak: Zehaztu:			
6. Larrialdiari buruzko informazio gehiago:			
7. Kanpoko baliabideak zer ordutan iritsi diren:			
8. Instalazioetara etorri diren kanpoko bitartekoei buruzko informazioa (idatzi):			
9. Informazio gehigarria / Oharrak:			
10. Kanpoko laguntza eskatu duen pertsonaren izena			

Bonba-mehatxua izanez gero, abisua hartu duenak horren gaineko informazioa biltzeko eredu:

BONBA-MEHATXUAREN JAKINARAZPENA			
Hartzailea: Kiroletako Udal Patronatuaren Zuzendaritza			
1. Abisua hartu duenaren izena			
2. Eguna:		3. Deia zer ordutan izan den	
4. Mezua (hitzez hitz idatzi deitu duenak esandakoa):			
5. Komunikatzailea zer taldekoa den (adierazi badu):			
6. Bonba non den: <input type="checkbox"/> Ez du adierazi <input type="checkbox"/> Lekua			
7. Lehertzeko ordua: <input type="checkbox"/> Ez du adierazi <input type="checkbox"/> Lekua			
8. Komunikatzailearen ahotsa: <input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea <input type="checkbox"/> Ezaugarriak			
9. Deia egindakoan ziren hondoko soinuak, baldin bazen:			
10. Bonbaren gainean ematen duen informazioa kontuan hartuta, ematen al du deitu duenak ezagutzen duela bonba jarrita den solairua edo zona? <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez			
11. Beste iruzkinen bat:			

III. ERANSKINA. PLANOAK

301 planoa	Kokapena eta kanpoko laguntzaren ibilbideak
302 planoa	Kanpoko laguntzaren sarbideak
303 planoa	Beheko solairua. Arrisku-fokuak
304 planoa	01. solairua. Arrisku-fokuak
305 planoa	02. solairua. Arrisku-fokuak
306 planoa	02-5 solairua. Arrisku-fokuak
307 planoa	03. solairua. Arrisku-fokuak
308 planoa	03-5 solairua. Arrisku-fokuak
309 planoa	04. solairua. Arrisku-fokuak
310 planoa	Teilatupeko solairua. Arrisku-fokuak
311 planoa	Beheko solairua. Babes-bitartekoak
312 planoa	01. solairua. Babes-bitartekoak
313 planoa	02. solairua. Babes-bitartekoak
314 planoa	02-5 solairua. Babes-bitartekoak
315 planoa	03. solairua. Babes-bitartekoak
316 planoa	03-5 solairua. Babes-bitartekoak
317 planoa	04. solairua. Babes-bitartekoak
317 planoa	Teilatupeko solairua. Babes-bitartekoak
318 planoa	Beheko solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa
319 planoa	01. solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa
320 planoa	02. solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa
321 planoa	02-5 solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa
322 planoa	03. solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa
323 planoa	03-5 solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa
325 planoa	04. solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa

325 planoa Teilatupeko solairua. Ebakuazio bideak eta sektorizazioa

IV. ERANSKINA. "LARRIALDIEI BURUZKO INFORMAZIOA, KANPOKO ENPRESENTZAT" ERANSKINA

1. XEDEA

Prozedura honen xedea da larrialdien gaineko informazioa ezartzea Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak kudeatutako instalazioetan zerbitzuak ematen dituzten kanpoko enpresentzat edo azpikontratatuentzat.

1.1. EGOERAK

1.1.1. Zerbitzu orduetatik kanpo ematen duten enpresak

Kasu berezia da zerbitzuak orduz kanpo ematen dituzten enpresena, hau da, alarma- eta ebakuazio-taldeko kide guztiak ez dauden garaian jarduten dutenena. Egoera horretarako, dena delako enpresari eskatzen zaio arduradun bat izendatu eta jartzeko, eta hark eramateko haren enpresako langileak ebakuatuta diren erregistroa. Horretarako ereduak jarduketa-fitxarekin bat etorri behar du.

1.1.2. Eraikineko leku ez-komunetan edo berezietan zerbitzuak ematen aritzen diren enpresak

"Leku bereziak" dira sarrera mugatua dutenak, alarma- eta ebakuazio-taldeak iristen diren leku komunetatik kanpo daudenak (instalazio-gelak, teilatu lauak, patioak, fatxadak eta abar) eta langileak ekipoak zaintzera eta konpontzera edo obrak egitera joaten direnak. Horretarako ereduak jarduketa-fitxarekin bat etorri behar du.

2. JARDUTEKO JARRAIBIDEAK

"KIROLETAKO UDAL PATRONATUAK KUDEATUTAKO UDAL INSTALAZIOEN LANORDUETATIK KANPO LEKU KOMUNETAN LAN EGITEN DUTEN ENPRESAK"

INSTALACIONES MUNICIPALES GESTIONADAS POR EL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES"

LARRIALDIETARAKO JARRAIBIDEAK

Eraikinek badute larrialdiak kudeatzeko jarrita den sistema bat, zeregin batzuk izendatuta ekipo batzuei eta ekipo zehatz batzuk izendatuta eremu komun guzti-guztiak ebakutatuta diren egiaztatzeko.

1) ORDUZ KANPO LAN EGITEA:

Horrelakoetan, arduradun bat jarri behar da, haren ekipoaren ebakuazioa egiaztatzeko. Arduradunak jakin behar du zenbat langile diren une hartan han lanean, eta, ebakutu behar izanez gero, ebakutatuta diren egiaztatu eta nagusi hurrenari jakinaraziko dio, KUPeri abisatzeko hark gero.

2) ERAIKINAREN BARRUAN DUZUN LANTOKIRA AILEGATUTAKOAN, EGIN BEHAR DUZU:

- ✓ Lantokitik ateratzeko zer irteera arrunt eta larrialdietako diren jakin (badira oinplano batzuk, irteerak eta jarraibide orokor batzuk jartzen dituztenak). Azter itzazu arretaz.

3) SUA DELA KONTURATUZ GERO:

- ✓ Lasai egon (ez hasi garrasika).
- ✓ Gertuen den su-alarmaren sakagailua aktibatu eta sua delako abisua eman.

4) LARRIALDI OROKORRA IZANEZ GERO, SIRENAK JOKA HASIRKO DIRA. HORRELA KOETAN:

- ✓ Utzi lana eta atera eraikinetik
- ✓ Markatuta eta seinaleztatuta den ebakuazio-ibilbideari jarraitu.
- ✓ Ez egin atzera, zure gauzak jasotzera edo beste pertsona batzuk bilatzera.
- ✓ Arduraduna: nagusi hurrenari jakinarazi

**"KIROLETAKO UDAL PATRONATUAK KUDEATUTAKO UDAL
INSTALAZIOETAKO LEKU BEREZIJAN LAN EGITEN DUTEN ENPRESAK"**

LARRIALDIETARAKO JARRAIBIDIAK

Eraikinek badute larrialdiak kudeatzeko jarrita den sistema bat, zeregin batzuk izendatuta ekipo batzuei eta ekipo zehatz batzuk izendatuta eremu komun guzti-guztiak ebakutatuta diren egiaztatzeko.

1) LEKU EZ KOMUN EDO BEREZIJAN LAN EGITEA:

Jobide errazik ez duten lekuak dira (instalazioak, estalkiak, patioak eta abar), lehen aipatutako ekipoak ailegatzeko ez direnak. Kasu horretan, arduradun bat jarri behar da. Arduradunak jakin behar du zenbat langile den une hartan han, eta, ebakutu behar izanez gero, denak ebakutatuta diren egiaztatu eta harrerako pertsonari edo zentroko larrialdietako buruari jakinarazi behar dio.

2) ERAIKINAREN BARRUAN DUEN LANTOKIRA AILEGATUTAKOAN, EGIN BEHAR DU:

- ✓ Lantokitik ateratzeko zer irteera arrunt eta larrialdietako diren jakin (badira oinplano batzuk, irteerak eta jarraibide orokor batzuk jartzen dituztenak). Azter itzazu arretaz.
- ✓ Arduraduna: harrerara joan eta bete enpresen sarreren eta irteeren erregistro-liburua, zenbat langile eta nora zoazten (edo zoazen) adierazita. Eskatu berrespen-fitxa harreran.

3) SUA DELA KONTURATUZ GERO:

- ✓ Lasai egon (ez hasi garrasika).
- ✓ Gertuen den langileari esan edo gertuen den su-alarmaren sakagailuari eman eta sua delako abisua eman.

**4) LARRIALDI OROKORRA IZANEZ GERO, SIRENAK JOKA HASIRKO DIRA.
HORRELAKEOETAN:**

- ✓ Utzi lana eta atera eraikinetik
- ✓ Markatuta eta seinaleztatuta den ebakuazio-ibilbideari jarraitu.
- ✓ Ez egin atzera, zure gauzak jasotzera edo beste pertsona batzuk bilatzera.
- ✓ Taldeetako kideek emandako ebakuazio-aginduak bete.
- ✓ Arduraduna: jakinarazi harreran zure taldea ebakutatuta dela.

3. HARRERA-DOKUMENTUA

HARRERA-DOKUMENTUA

Nik, jaunak/andreak, (r) en izenean eta hura
ordezkatuz,

jaso dut titulu hau duen memoria:

"KANPOKO ENPRESEI LARRIALDIEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO PROZEDURA"

Honako puntu hauek ditu:

1	XEDEA.....	77
1.1.	EGOERAK.....	77
1.1.1.	Zerbitzua orduetatik kanpo ematen duten enpresak.....	77
1.1.2.	Zerbitzua eraikineko leku ez-komunetan edo berezietan ematen duten enpresak.....	77
2	JARDUTEKO JARRAIBIDEAK.....	78
3	HARRERA-DOKUMENTUA.....	80

Donostian,-ko-ren-(e)an.

Izpta.:

Sinadura eta izena

V. ERANSKINA. "LARRIALDIETAKO LANGILEEN TELEFONOAK". INPRIMAKIA

Larrialdietako langileen telefonoak LARRIALDIETAKO LANGILEEN TELEFONOAK EKINTZA/EVENTO:

EGUNAK:

ORDUTEGIA:

KARGUA EDO LANPOSTUA:	IZEN-ABIZENAK:	ESKUKO TELEFONOA:	ENPRESA:
Interbentzio Burua Eskuhartze burua			
Interbentzio Taldea Eskuhartze taldea			
Alarma eta ebakuaziorako taldea Arma- eta ebakuazio- ekipamendua			
Laguntza Taldea Laguntza-taldea			
Bestelako taldeak			

Ekitaldia egin baino egun batzuk lehenago, Kiroletako Udal Patronatuak pertsona horien izendapena jakinaraziko dio **Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari**, dagokion inprimakia bete eta bidalita hura. Inprimaki hori Eusko Jaurlaritzaren **"Autobabes planen erregistroa" aplikazio informatikoaren** bidez aurkeztuko da. Era berean, zehazki zer ekitaldi izango den eta noiz ere adierazi egin behar da.

VI. ERANSKINA. SIMULAZIOA EGITEKO INPRIMAKIA

TXOSTENA	
<input type="checkbox"/> Larrialdi-simulakroa	EGUNA:
SIMULAZIO-EGOERAREN DESKRIBAPENA	
SIMULAZIOAREN HELBURUAK	
INPLIKATUTAKO EREMUAK/ZONAK	
Simulazioaren iraupena, guztira	
Eremu/Eraikin bakoitzeko ebakuazioaren iraupena	1. eremua/eraikin a: eta abar.

BERTAKO LANGILEEN LANKIDETZA		
Oso ona		Oharrak:
Ona		Oharrak:
Hala-holakoa		Oharrak:
Txarra		Oharrak:

Markatu X batez dagokion tokian

KANPOKO LANGILEEN LANKIDETZA		
Oso ona		Oharrak:
Ona		Oharrak:
Hala-holakoa		Oharrak:
Txarra		Oharrak:

Markatu X batez dagokion tokian

KANPOKO ZERBITZUEN LANKIDETZA			
SUHILTZAILEAK	Oso ona		Oharrak:
	Ona		Oharrak:
	Hala-holakoa		Oharrak:
	Txarra		Oharrak:
	Ez daude		Oharrak:
OSASUN-ZERBITZUAK	Oso ona		Oharrak:
	Ona		Oharrak:
	Hala-holakoa		Oharrak:
	Txarra		Oharrak:
	Ez daude		Oharrak:
ERTZAINZA	Oso ona		Oharrak:
	Ona		Oharrak:
	Hala-holakoa		Oharrak:
	Txarra		Oharrak:
	Ez daude		Oharrak:

Markatu X batez dagokion tokian

SISTEMEN ETA EKIPOEN FUNTZIONAMENDUA				
Sistema	Erabili da		Funtzionamendua	
	Bai	Ez	Egokia	Ez egokia
Su-itxalgailuak				
Suteetako ur-hargune hornituak				
Ur-harguneak				
Detektagailuak				
Alarmak (sirenak eta megafonia)				
Ebakuazio-bideak				
Larrialdietako irteerak				
Larrialdietako argiak				
Oharrak				

HORNIDUREN KONTROLA			
Hornigaien kontrolik izan da:	Bai	Ez	Ez dago
Argindarra			
Ura			
Gasa			
Oharrak			

GORABEHERAK		
Mota	Zenbat eragindako	Balorazioa
Istripu pertsonalak		
Kalte materialak		
Ingurumen-inpaktua		
Oharrak		

SIMULAZIOAREN/LARRIALDIAREN DESKRIBAPENA

PROPOSAMENAK ETA IRADOKIZUNAK:

IREKITAKO ADOSTASUN-EZAK/EKINTZA ZUZENTZAILEAK:

Autobabes Planaren zuzendariaren sinadura: